

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ALDEZLEAREN URTEKO TXOSTENA

2020ko abenduaren 15a - 2021eko abenduaren 14a

Iñigo Urrutia Libarona

aldezlea

AURKIBIDEA

Sarrera	3
1. 2021eko aztergaiak	7
1.1. Bulegora etorritako pertsona kopurua eta aztergai kopurua.....	7
1.2. Bulegora joan diren pertsonen generoa.....	8
1.3. Bulegora jo duten pertsonen erabilitako hizkuntza.....	10
1.4. Aztergaiak, kolektiboaren arabera: ikasleak, irakasle-ikertzaileak, AZPko langileak eta "Beste batzuk".....	11
1.5. Aztergaiak, campusaren arabera.....	13
1.6. Aztergaiak ikastegiaren eta zerbitzuen arabera.....	14
1.7. Aztertutako gaiak.....	16
1.7.1. Kolektiboek planteaturiko aztergai motak.....	17
1.7.2. Emakumeek eta gizonen planteaturiko aztergai motak.....	19
1.8. Kolektibo bakoitzak planteatutako gaiak.....	21
1.9. Bulegoaren esku hartzea.....	29
1.9.1. Baietsitako kexen gaia.....	30
1.9.2. Baietsitako kexen jomuga diren kolektiboak eta organoak.....	33
1.10. Jaso dugun erantzuna.....	34
1.11. Inplikaturako zerbitzuen eta arduradunen lankidetzaren.....	34
2. Aldezlearen beste eginkizun batzuk	35
2.1. Unibertsitateko Defendatzaileen Estatuko XXIII Topaketa.....	35
2.2. CEDUren jardunalditeknika.....	35
2.3. CEDUren XIV. Ohiko Batzar Nagusia.....	35
2.4. CEDUren Ezohiko Batzar Nagusiak.....	35
2.5. CEDUren defendatzaileekiko lankidetzaren foroetan parte hartzea.....	36
2.6. UPV/EHUren Gobernu Kontseiluetan parte hartzea.....	36
3. Urteko txosten ekonomikoa	36
4. Ondorioak eta gomendioak	37
I. ERANSKINA: 2021eko aztergaiaren zerrenda	49

Sarrera

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Estutueta 77. artikulua betetze aldera, Aldezlearen zerbitzuaren urteko jardueren memoria aurkezten diogu Unibertsitateko Klaustroari. Memoriak 2020ko abenduaren 15etik 2021eko abenduaren 14ra bitarteko aldiaren berri ematen du.

Memoria hau UPV/EHUko Klaustroak 2017ko maiatzean nire esku utzi zuen agintaldiaren azken urteari dagokio. Eskertu nahi nuke, lehenik eta behin, unibertsitate Klaustroak nigan jarri zuen konfiantza. Azkeneko bost urte hauetan ahaleginak egin ditut unibertsitatea osatzen dugun pertsona guztiak babesten dituzten eskubideak bermatzeko, eta unibertsitatearen jarduera maila guztietan ematen diren arazoak eta gatazkak prebenitzen eta konpontzen saiatu naiz, gizarteari ematen diogun unibertsitate zerbitzu publikoa hobetzen laguntzeari begira. Badakit, saiatu arren, ezin izan ditudala beti asebate bulegora beren kasua azaltzera etorri diren pertsona guztien interesak eta itzaropenak. Haiei ere konfiantza eskertu nahi diet, eta barkamena eskatu. Aldezlearen zeregin instituzionala unibertsitatearen interes orokorra bilatzea da, egoerak ñabardura guztiekin ulertzeko ahalegina eginez, kasu bakoitzean bidezkoa den jarrera proposatzeko eta defendatzeko. Gure unibertsitateko kide askori beren eskubideen eta interesen defentsan lagundu ahal izatearen poza ere niretzat eramango dut.

Eskertu nahi dut ere agintari akademiko guztiek UPV/EHUren Aldezlea erakundearekin izan duten prestutasuna, harrera eta kontsiderazioa. Eskerrak ematen dizkiot errektoretza taldeari eta, bereziki, errektore andreari eta haren gobernu talde osoari, eskatu dudan guztietan harrera egin didatelako, gehientsuenetan gai desatseginak landu behar izan baditugu ere. Eskerrik asko Aldezlearen erakundeari erakutsitako begiruneagatik. Horiek guztiek erakunde honen independentzia errespetatu dute, eta hori guztiz beharrezkoa da haren funtzionamendua zuzena izan dadin. Era berean, erakundearekin izandako lankidetzeta eta niri emandako laguntza eskertu nahi diet ikastegietako zuzendari eta dekanok guztiei, sailtako zuzendariari, gerentziako taldeari, gerentea buru duela, eta arlo nahiz ataleko arduradun guztiei.

Aldezlearen erakundeak UPV/EHU dagoeneko finkatuta dagoen erakunde bat da, eta unibertsitateko kolektibo guztiek errespetatzen eta onartzen dute. Erabat sinetsita nago unibertsitate jardueraren maila guztietan jazotako arazoaren eta gatazken prebentzioak eta konponbideak –baita gatazkek konpontzeko metodo alternatiboen sustapenak ere– laguntzen dutela euskal gizarteari ematen diogun zerbitzua hobetzen.

Eskuarki, unibertsitatearen kalitatea neurtzen da munduko edo Europako rankinetan unibertsitateak duen posizioaren bidez, ikerketa proiektu edo tesi

kopuruaren bidez, irakasleen kalitate egiaztatuaren bidez, ikerketa argitalpenen inpaktuaren bidez... Alabaina, pertsona zaurgarrienei eta unibertsitate ikasketak modu konbentzionalean egiteko zailtasun gehien dituzten pertsonen ematen zaien tratua menpe ere badago unibertsitate kalitatea, eta hala erakutsi dute unibertsitate publiko batek baino gehiagok. Egoera okerrenetan daudenei goi mailako ikasketak eta ikerketak egiteko aukera ematea eta pertsona guztien eskubideak bermatzea ere kalitate irizpide gisa ikusi behar dira, horren bidez agerian geratzen baita unibertsitateak zerbitzatzen duen gizarteari ematen dion zerbitzuaren handitasuna.

2021. urtea ere SARS-CoV-2 birusari lotutako pandemiak eta hark eragindako gaixotasunak, COVID-19ak, markatu dute. Hori dela eta, gure unibertsitateko sektore guztietako kideek egokitzen jarraitu behar izan dute, egoera horri aurre egiteko. Uste dut UPV/EHUK inoiz izan duen erronka nagusia izan dela, eta erantzuna eredugarria izan da. Horri dagokionez, hemendik, Aldezlearen bulegoak aitortza bat egin nahi die unibertsitate hau osatzen dugun guztion lanari eta inplikazioari. Irakasleen lana eta administrazio eta zerbitzuena etenik gabe egin ahal izan da, gure langileen profesionaltasunari eta lan onari esker. Aitortu behar da, halaber, ikasleek beren prestakuntza konpromisoa sendotasunez betetzeko egindako ahalegina; egoera berrira egokitzen jakin dute, eta, konplexutasunak gorabehera, motibatuta jardun dute, ingurune guztiz desberdin batean. UPV/EHUK egoerari behar bezala erantzuten jakin du, oso ingurune zailera moldatu behar izan baitu eta euskal gizarteari goi mailako hezkuntza zerbitzu publikoa bermatzeko erronkari aurre egin baitio, kalitatez eta aukera berdintasuna bermatuz. Euskal Herriko Unibertsitateak bere ahalmena erakutsi du, eta gizarteari zerbitzatzeko konpromisoa berritu du, egoera izugarri konplexu batean.

Edonola ere, joan den urtean pilatutako esperientzia oinarri hartuta, gero eta presentzialtasun maila handiagoak lortzen joateko apustuak emaitza onak eman ditu. Hori agerian geratu da, hain zuzen, azken urte honetan ikaskuntza-irakaskuntzari lotutako kezak iaz baino askoz ere gutxiago izan direlako. Estamentu guztiok (Irakasle-ikertzaileak, ikasleak eta AZPko langileak) asko ikasi dugu oso denbora tarte laburrean. Ingurune birtual batean lan egiteko gure gaitasunak biderkatu egin dira azken aldi honetan. Halere, barneratu behar dugun irakaspena zera da, lan egiteko modu berri horiei lotuta arazo berriak sortu direla eta horiei ere aurre egin behar zaiela. Ingurune erdi-presentzial edo birtual batean irakaskuntza ematea ez da bakarrik eskola presentzial baten mekanika bideokonferentziaz ematea; haatik, irakaskuntza estrategiak, metodologia, ebaluazioa eta kudeaketa ingurune berri baten beharretara egokitzea eskatzen du.

Nolanahi ere, egokitzeko etengabeko behar horrek gorabeherak ere eragin ditu, eta askotan Aldezlearen bulegora iritsi dira, unibertsitateko kideen eskubideak bermatzen dituen organoa den neurrian. Memoria honetan hori guztia izango da gure hizpide nagusia.

UPV/EHU osatzen dugun pertsonen kolektibo handiaren eskubideen bermeaz kezkatzea eta arlo horretan etengabe hobetzea oinarritzko faktoreak dira, gure unibertsitate publikoaren garapenerako. Guztion eskubideak bermatzea gizarteari eskaintzen diogun zerbitzu publikoa hobetzeko modu aproposa da.

Aldezleak bere jardueraren oinarri gisa erabiltzen dituen prozedurak ezagunak dira, eta deskribatu dira jada aurreko memorioetan. Horietan adierazitakoa berresten dut, eta horri dagokionez oinarritzko zenbait ideia gogoratu nahi ditut. Hala, eskuarki egiten ditugun jarduerak hiru motakoak izan daitezke:

- **Kontsultak:** interesdunek egiten dituzte kontsultak, eta jakin nahi izaten dute beren eskubideek zer irismen zehatza duten edo nola babes ditzaketen, eta unibertsitateko organo eta zerbitzuen jarduera eremua ere ezagutu nahi dute. Aholkularitza zereginak dira.
- **Kexak eta erreklamazioak:** UPV/EHUko kideek edo UPV/EHUkoak izan gabe interes legitimoa duten pertsonak planteatzen dituzte, beren eskubide edo interes legitimoak urratuak izan direla irizten diotelako administrazioaren jardueragatik edo jarduera ezagatik edo UPV/EHUko organoek, zerbitzuek, agintariek edo irakasleek hartutako erabakiengatik. Zerbitzu honen hurrengo jarduera izan daiteke; alde batetik, orientazio edo jarraipena egitea, non interesdunari adierazten baitzaio zer urrats egin behar dituen bere kasua konpontzeko, baldin eta aldezlearen jarduera galarazita balego, esate baterako, prozedurazko ohiko bideak agortu ez direlako; eta bestetik, unibertsitate erakunde eskudunari gomendio bat helaraztea, dagokion azterketa kontrastatua egin ondoren. Gomendio horiek araudia betetzeari buruzko oroigarri bat eduki dezakete, edo kasuari aplikatu dakioken arauen bat interpretatzeko moduari buruzko iradokizun bat; araua aldatzeko proposamen bat ere eduki dezake, edo arau edo akordio berri bat onartzeko aukera iradoki, ematen dugun unibertsitate zerbitzu publikoa hobetzeko, edo proportzionaltasun epai bat egin, babestea merezi duen eskubide edo interesen bat bermatzeari begira.
- **Bitartekaritza-kontziliazio prozesuak:** unibertsitateko bi kideren edo gehiagoren arteko gatazka kasuetan planteatzen dira. Konponbidea bilatzeko, inplikaturako pertsonen arteko elkarrizketa bilatzen da, eta aldezleak bitartekari gisa jarduten du, bi aldeen arteko akordio egoki bat bilatu nahian.

Aipatu berri ditugun hiru jarduera motez gainera, bulegoan "gertakizunen kontaktak" ere jasotzen dira, eta horien bidez, interesdunek egoera edo gertakizun baten berri ematen diote aldezleari, inolako jarduerarik hasteko eskatu gabe, edo ez jarduteko eskatzen.

Kexak eta erreklamazioak aztertu ondoren unibertsitate jarduera desegokia izan dela ondorioztatzen dugunean, gomendio edo iradokizun bat helarazten diogu

eraginpeko unibertsitate zerbitzuari, haren jarduera alda dezan eskatuz. Batzuetan, dena delako unibertsitate zerbitzuak legearen arabera jardun duela ikusten dugu; nahiz eta, gure iritziz, beste era batera jardun daitekeen, eskubideak edo administrazio onaren printzipioa hobeto babesteko. Horrelakoetan, eskubideen hedadura gorenerako edo haren eragin baliagarria lortzeko egokiagoa izan daitekeen interpretazio bat gomendatzen dugu.

Txosten honen edukiak aurrekoen oinarrizko egitura bera du, gaien eta haien ezaugarrien bilakaera aztertu ahal izateko. Hasteko, 2021. urtean bulegora iritsi diren kasuak deskribatuko ditugu, aurreko urteetakoekin erlazioan jarrita, horren gaineko zenbait ohartarazpen egiteko. Jarraian, bulego honek 2021an egindako beste jarduera batzuk deskribatuko dira, hala ohikoak nola beste jarduera batzuei lotutakoak, eta urteko txosten ekonomikoa aurkeztuko da. Azkenik, txostenaren amaieran zenbait gogoeta orokor egiten dira. Sartuta dago, halaber, eranskin bat, non 2021ean aztertutako gai guztiak zerrendatzen baitira taula batean.

Amaitzeko, nire eskerrik zintzoena adierazi nahi diet Aldezlearen zerbitzuko lankide Ana Saralegiri eta Maite Estévezi, haien pazientzia eta eraginkortasunagatik eta erakundearekin duten konpromisoagatik. Haiek gabe, ezinezkoa izango litzateke jarraian zerrendatzen diren jarduera asko eta asko aurrera ateratzea.


1. 2021eko aztergaiak

Atal honetan, bulegoak 2021. urtean landutako aztergaiak eta haien oinarritzko ezaugarriak deskribatuko ditugu. **I. ERANSKINEAN** urte osoko aztergaien zerrenda biltzen da.


1.1. Bulegora etorritako pertsona eta aztergai kopurua

2021. urtean, 148 pertsona joan dira aldezearen bulegora, eta 148 aztergai planteatu dituzte guztira (Kontsultak, Kexak eta Bitartekaritza eskaerak kontuan hartuta). Datuak aurreko urteetako ildoan mantentzen dira, eta igoera txiki bat eman da bai bulegora joandako pertsonen kopuruan, bai planteatu diren kasuen kopuruan. Subjektu kopuruaren eta kasu kopuruaren arteko bat etortzea kasualitatea da; izan ere, pertsona batzuek aztergai bat baino gehiago planteatzen dute, eta, modu berean, aztergai batzuek hainbat pertsonari eragiten diete; horrelakoetan, bulegoan bakoitza modu bereizian aurkezten bada ere, kexa edo aztergaiaren oinarriaren identitatea ikusita, kasu zenbaki berdina ematen zaie. Horregatik, emandako datuak esan nahi du 148 pertsona desberdin joan direla bulegora, eta 148 aztergai desberdin planteatu direla. Orotara, UPV/EHUren Aldezearen zerbitzua martxan jarri zenetik, 1.218 pertsona igaro dira bertatik, eta 1384 kasu eta 91 gertaera kontakizun planteatu dituzte.

Lehen grafikoak bulegoan hartutako pertsona kopuruaren eta aztergaien bilakaera erakusten digu, Aldezle erakundeak UPV/EHU martxan daraman 10 urteko ibilbidean. Ez da aldakortasun handirik hautematen erregistratutako datuetan, batik bat, azken lau urteetan; hala, datuak mantendu egiten dira erakutsitako aldi osoaren batez besteko zenbatekoan, eta 2021. urtean igoera txiki bat eman da.





Hurrengo ataletan, aipatutako 148 aztergaiak hartuko ditugu oinarrizko erreferentziatzat. Gainera, aurten, 5 pertsonak beste 5 aztergai gehiago aurkeztu dituzte bulegoan. Pertsona horiek ez zuten aurkeztu ez kontsultarik, ez kexarik, ez bitartekaritza eskaerarik; haatik, gertakizun batzuen berri eman zuten, kontsideratu baitzuten unibertsitatearentzat garrantzitsuak zirela eta aldezleak jakinarenean gainean egon behar zuela. Bigarren grafikoan, azken urteetan jasotako "gertaeren kontakizun" kopurua dugu ikusgai.



1.2. Bulegora joan diren pertsonen generoa



Aldezlearengana jo duten 148 pertsonen artetik, 83 emakumeak ziren, eta 65, gizonak. Emakumeek, orotara, 79 aztergai planteatu dituzte, eta gizonek, berriz, 69. Hirugarren grafikoan, aldezlearen hamar urteko ibilbideari dagozkion maiztasunak ematen dira, eta laugarrenean, ehunekoak.



Laugarren grafikoa ikus daitekeenez, lehen bi urteetan izan ezik, sexu bakoitzetik gure zerbitzura etorri diren pertsonen proportzioa UPV/EHUren barruan dagoen proportzio errealetik gertu dago (gaur egun, gizonak %45,4 dira, eta emakumeak, % 54,6).

1.3. Bulegora joandako pertsonen erabilitako hizkuntza

Aipatutako 148 aztergaietatik, 38 euskaraz planteatu ziren, eta 110, gaztelaniaz.




2021. urtean izapidetutako kasuen % 25,7 euskaraz planteatu eta ebatzi dira, azken urteetan erregistratutako ehunekoan azpitik, hizkuntzetako bakoitzean planteatutako aztergaien urteko ehunekoak ematen dituen 6. grafikoan ikus daitekeen moduan. Batez beste, 2012. urteaz geroztik, aldezlearengana jo duten pertsonen % 24,4 euskaraz mintzatu dira.


1.4. Aztergaiak, kolektiboaren arabera: ikasleak, irakasle-ikertzaileak, AZPko langileak eta "Beste batzuk"

Kolektiboaren arabera, 2021ean, ikasleek 51 aztergai planteatu dituzte; irakasle-ikertzaileek, 56; AZPko langileek, 15; eta, azkenik, unibertsitatekoak ez diren pertsonak ("Beste batzuk" kategorian), 26. Aurten, nabarmen egin du behera ikasleek planteatutako kasuen kopuruak, eta gainerako kolektiboena, berriz, igo egin da, irakasle-ikertzaileen sektorean gehienbat, aurreko urtean baina 13 kasu gehiago planteatu baititu.


Zazpigarren grafikoan, hamar urteotan kolektibo bakoitzak planteatutako aztergaien bilakaera ikus daiteke. 2021. urtean, irakasle-ikertzaileek eta "beste batzuk" kolektiboak aurkeztutako aztergaien kopuru altuena erregistratu da, eta ikasleen kolektiboak planteatutako gaien kopuru baxuena.



Zortzigarren grafikoan unibertsitateko kideek osatutako kolektiboen datuak ematen dira (irakasle-ikertzaileak, AZPko langileak eta ikasleak), ehunekotan. 2021ean, bi kolektibo nagusien ehunekoak gerturatu egin dira, eta 2012. urteaz geroztik lehenengoz, irakasle-ikertzaileek planteatutako gaien ehunekoak ikasleena gainditu du, orain arte azken hori izan baita handiena, alde handiz.




2021ean, ikasleek planteatutako 51 gaien artean, 45 graduiko ikasleek aurkeztu dituzte, eta 6, graduondoko ikasleek (9. grafikoa).




2021. urtean, behera egin du bai graduiko ikasleek bai graduondokoek planteatutako kasuen kopuruak, baina azken horrena jaitsi da gehien, graduatutako ikasleek planteatutako aztergaien aurtengo kopurua inoizko txikiena izan baita.

1.5. Aztergaiak campusaren arabera

Bulegoak unibertsitateko kideengandik jaso dituen 148 aztergaietatik, 39 Gipuzkoako Campusetik iritsi dira; 64, Bizkaiko Campusetik; eta 19, Arabako Campusetik (dagoeneko esan dugunez, UPV/EHUkoak ez diren pertsonen beste 26 aztergai iritsi zaizkigu). Datu horiek aurreko urteetakoekin alderatzen baditugu (10. grafikoa), ikus daiteke Gipuzkoako eta Arabako campusetatik iritsitako aztergaien kopuruak behera egin duela, eta gora, berriz, Bizkaiko Campusetik iritsitakoenak, baina alde handirik izan gabe. 2021. urtean hiru campusetan erregistratutako datuak erakutsitako hamar urteetako batez besteko balioaren inguruan dabilta.



Hamaikagarren grafikoak datu horiek ehunekotan ematen dizkigu. Egin daitekeen irakurketa da campus bakoitzeko aztergaien kopurua hurbil dagoela bakoitzak gizarte errealitatean ordezkatzeko duen ehunekoetatik. Bizkaiko campusetik iristen zaizkio jarduteko eskaera gehien aldeleari; gero, Gipuzkoakoa dago, eta, azkenik, Arabakoa.



1.6. Aztergaiak ikastegien eta zerbitzuen arabera

Lehen taulan, aldezlearen esku hartzea eskatu duten pertsonen ikastegien eta zerbitzuen zerrenda ematen dugu. Bertan, aztergai mota guztiak zenbatzen dira, nola keak (gero baietsiak izan ala ez), hala kontsultak eta bitartekaritza eskaerak.

Hurrengo taularen datuak erlatibizatu behar direla aipatu behar dugu, soilik aztergaia nondik datorren adierazteko balio baitute, hortik kanpo ondorioak ateratzeko aukerarik eman gabe. Aztergai gehienak ikastegi handienetan biltzen dira, eskuarki, eta subjektuen askori eragiten dioten aztergaiak izateak ere eragina izaten du; hortaz, ikastegi edo zerbitzu beraren estatistikak edo datuak asko alda daitezke urte batetik bestera askotariko faktoreen eraginez.

1. taula. Aztergaiak planteatu dituzten pertsonen ikastegiak eta zerbitzuak


Ikastegiak eta Zerbitzuak	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Arabako Biblioteka	-	-	-	1	-	-	-	-	-	-
Argitalpen Zerbitzua	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Arkitektura GET	4	6	4	2	-	-	6	3	1	2
Arte Ederren F.	1	5	1	4	2	1	2	5	4	4
Bilboko Hezkuntza F.	5	3	4	4	7	7	4	6	2	5
Bilboko Ingeniaritza E.	15	13	13	12	6	11	14	6	10	11
Bilboko Merkataritza Ganberako UE	-	-	-	2	-	1	-	-	-	-
Bizkaiko Biblioteka	-	-	-	-	-	-	-	2	-	-
Campuseko Gerenteordetza	-	2	-	-	-	-	2	3	3	-
Doktorego E. *	-	1	1	5	6	4	2	10	1	3
Ekonomia eta Enpresa F.	5	24	5	3	5	13	11	10	11	7
Enplegu Gunea	-	-	-	-	-	1	1	-	-	-
Eraldaketaren Digitalaren eta Komunikazioaren arloko Errekt.	-	-	-	-	-	-	1	-	-	-
Errektoregoa	1	-	-	-	-	-	-	-	-	4
Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errekt.	-	-	-	-	-	-	-	1	1	-
Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzua	-	-	-	-	1	1	-	-	-	-
Farmazia F.	2	4	4	1	2	2	1	2	6	-
Gasteizko Erizaintzako UE	-	1	1	-	2	2	1	-	-	-
Gasteizko Ingeniaritza E.	2	4	6	6	2	2	1	1	1	2
Gerentzia	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-
Gipuzkoako Biblioteka	-	1	-	4	2	1	2	-	1	1
Gipuzkoako Esperientzia Gelak	-	-	1	-	7	-	1	-	-	-
Gipuzkoako Ingeniaritza E.	2	4	2	1	2	10	4	9	10	12
Gizarte eta Komunikazio Zientzien F.	6	8	17	9	2	6	5	1	6	5
Graduaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Arloko Errekt.	-	1	-	-	-	2	-	-	-	2
Graduondokoaren eta Etengabeko Prestakuntzaren Errekt.	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia F.	1	7	10	11	9	21	7	13	15	8
Hezkuntza eta Kirol F.	3	1	4	6	3	4	7	1	2	5
Idazkaritza Nagusia	-	1	2	1	-	-	-	-	1	-
Ikasleen eta Enplegarritasunaren arloko Errekt.	-	-	-	-	-	-	-	2	1	5
Ikasleen kontseilua	2	3	1	1	-	-	-	-	-	-
Ikerketaren arloko Errekt.	-	-	-	-	1	-	-	-	-	-
IKTen Gerenteordetza	3	-	-	2	2	2	1	1	-	2
Ikuskaritza Zerbitzua	-	-	-	-	1	-	-	-	-	-
IMH Ingeniaritza Duala UE	-	-	-	4	6	7	-	1	1	-
Informatika F.	-	2	4	2	-	-	3	4	3	2
Irakasle-ikertzaileen arloko Errekt.	-	-	-	-	-	-	1	-	-	-
Joxe Mari Korta eraikina	-	-	-	1	-	-	-	-	-	-
Kimika F.	-	-	1	-	-	-	1	4	-	-
Kirol Zerbitzua	-	-	-	-	1	1	-	1	-	-
Lan Harreman eta Gizarte Langintza F.	1	4	1	-	1	-	-	1	-	-
Letren F.	2	6	16	7	3	3	7	7	10	7
Materialen Fisika Zentroa	-	-	-	-	1	-	-	-	-	-
Medikuntza eta Erizaintza F.	13	6	17	12	19	15	17	11	11	9
Pertsonaleko Gerenteordetza	-	-	1	2	-	-	-	1	1	-
Prebentzio Zerbitzua	-	-	-	-	-	1	-	-	-	-
Psikologia F.	5	4	1	6	9	10	5	1	4	6
Zientzia eta Teknologia F.	3	6	11	7	4	7	7	8	8	11
Zuzenbide F.	6	7	9	9	5	9	6	10	8	7
Beste batzuk**	15	16	26	14	8	20	18	13	20	26
Guztira	97	140	164	139	119	164	138	138	142	148

* 2019ra arte, Master eta Doktorego Eskolatik planteatutako gaiak sartzen dira.

** UPV/EHUkoak ez diren kideak planteatu dituzten gaiak ere sartzen dira.

1.7. Aztergaien sailkapena

Aztergaien izaerari erreparatuz gero, 2021ean, 106 kontsulta, 39 kexa eta 3 bitartekaritza eskaera jaso ditugu. Hamabigarren grafikoan, datu horiek aurreko urteetakoekin alderatu ditzakegu.




2021ean aztergaien izaeraren arabera banaketa 2020koaren oso antekoa izan da. 2019. urtera arte, pixkanakako jaitziera bat hauteman dugu jarritako kexetan eta bitartekaritza eskaeretan, eta horrekin batera, kontsulta modura aurkeztutako aztergaien kopurua etengabe hazten joan da. Joera hori 2020an eten zen. Hala, jasotako kexen kopurua igo, eta kontsulten kopurua apur bat jaitsi zen lehenengoz. 2021ean jasotako kexen eta kontsulten kopurua aurreko urtekoaren parekoa izan da.

Kontsulta sistema oso baliagarria da, aurkeztutako kasu gehienek tratatzea bideratzeko. Prozedura arin bat da, azkar analizatzea, ikertzea eta kontrastatzea eskatzen duena, planteatzen zaigun gaiari konponbide egoki bat emateko; horrela, kexaren prozedura, zeina burokratikoagoa baita, fase dokumental landuagoak eskatzen dituzten egoerentarako uzten da.


1.7.1. Kolektiboek planteaturiko aztergai motak

Jarraian, 13., 14. eta 15. grafikoetan aztergai mota (kontsulta, kexua eta bitartekaritza eskaera, hurrenez hurren) bakoitzaren bilakaeraren berri ematen dugu, kolektiboka.


Hamahiru grafikoan ikus daitekeenez, kontsulten kopuruak gora egin zuen pixkanaka kolektibo guztietan 2020. urtera arte, orduan jaitsiera arin bat eman baitzen irakasle-ikertzaileen eta AZPko langileen kolektiboetan. 2021. urtean, sail honen goranzko joerak jarraipena izan zuen, ikasleen artean izan ezik, non jaitsiera nabarmena eman baitzen.



Kexei dagokienez —ikus 14. grafikoa—, 2021ean irakasle-ikertzaileek, AZPko langileek eta “Beste batzuek” jarritako kexen kopuruak behera egin zuen, baina ikasleenak, gora. Kexek hamar urteetan izandako bilakaera aztertzen badugu, gorabeherak hautematen dira, baina joerak, oro har, beheranzkoa izaten jarraitzen du aipatutako lehen hiru kolektiboetan; oster, ikasleen joera goranzkoa da, 2019. urteaz geroztik. Unibertsitateko kideren batek unibertsitate organo batek hartutako erabaki batekin desadostasunak dituenean planteatzen dira kexak; izan ere, kexa jarri duen kide horren iritziz erabaki horrek bere eskubideren bat urratzen du, edo bere askatasunen bat justifikaziorik edo neurritz kanpo murrizten du.




Bitartekaritzari dagokionez, aurten hiru pertsonak eskatu dute aldezearen esku hartzea, haien intereseko gaietan bitartekaria izan dadin unibertsitate organoen aurrean (argitalpen baterako egilekideen arteko gatazkak, bizikidetzaz arazoak sail batean, araudiaren gabezia lotutako lanpostu bat duten irakasle-ikertzaileen orduen dedikazioan).




Azalpena: 2012. eta 2015. urteen bitartean, lerro berdea, AZPko langileei dagokiena, bera estaltzen duen horiaren —Beste batzuei dagokiena— berdina izan da.

1.7.2. Emakumeek eta gizonen planteaturiko aztergai motak


Jarraian, aztergaien bilakaera azaltzen dugu, generoaren arabera bereizita. Aipatu dugunez, 2021. urtean, 65 gizonen jo dute aldezlearengana, eta orotara 69 aztergai planteatu dituzte, eta 83 emakumeek, berriz, 79 kasu planteatu dizkiote aldezleari. Lehen grafikoan (16. grafikoa), urte bakoitzean egindako kontsulten kopurua agertzen da. Ikusten denez, goranzko joera orokorraren barruan, azken urtean beste igoera bat eman da hala emakumeek nola gizonen planteatutako kontsulten kopuruan. Jasotako kexen kopuruari erreparatzen badiogu (17. grafikoan), gora egin dute ere gizonen kolektiboan; haatik, emakumeek aurkeztutako kexen kopuruak behera egin du. Gizonen planteatutako aztergaien % 29 kexak dira. Portzentaje hori % 24ra jaisten da, emakumeek planteatutako kasuei erreparatzen badiogu. Horrela, orotara jasotako kexen kopuruari erreparatzen badiogu, ikus dezakegu % 51,3 gizonen jarri dituztela eta % 48,7, berriz, emakumeek. Ez da hautematen, beraz, alde esanguratsurik sexu bakoitzetik aurkeztutako kexen ehunekoan. Bitartekaritza eskaerei dagokienez (18. grafikoa), bilakaerak gorabehera nabarmenak erakusten dizkigu, eta ez dira alde esanguratsuak ikusten sexuen artean.



17. grafikoa. Emakumeen eta gizonen kexak



18. grafikoa. Emakumeen eta gizonen bitartekaritza eskaerak



1.8. Kolektibo bakoitzak planteatutako gaiak

Kolektiboek planteatutako arazo motak (edozein eratakoak, ez soilik kekek) zehaztasun handiagoz ezagutzera emateko asmoz, jarraian, hurrenez hurren, ikasleei, irakasle-ikertzaileei, AZPko langileei eta "Beste batzuei" dagozkien lau taula aurkezten ditugu (2, 3, 4 eta 5. taula).

Taulak kategorien eta gai espezifikoaren arabera daude antolatuta, aurreko urteetako txostenetan jasotako irizpideari jarraituta. Edonola ere, metatutako esperientzia oinarri hartuta, txosten honetan aldaketa txikiren bat txertatu dugu kategorien sisteman; esate baterako, azken hamar urteetan ia maiztasunik izan ez duten kategoriak kendu, eta horiei zegozkien kasuak "Bestelakoak" kategorian sartu ditugu. Hori dela eta, desberdintasun txikiren bat hauteman daiteke taula hauetako urteko datuen eta aurreko mermoretan aurkeztutakoaren artean.

Tauletan, hondo urdinez nabarmentzen dira gutxienez zortzi urtez errepikatu diren gaiak. Bestalde, horietan guztietan parentesi artean adierazten da zenbat kasutan esku hartu behar izan duen aldezeleak —gaiaren edukia edozein zela ere— zegokion organoak erantzun ez duelako. Horrelako kasuetan, sakoneko gaia prozedurazko alderdiekin gurutzatzen da, hala nola idatzi edo errekurtsio bati epean ez erantzutea; horrelakoetan, gaia funtsezko kategoria nagusiaren barruan sartzen da.

Bigarren taulan, ikasleen kolektiboak planteatutako aztergaien gaiak agertzen dira. 2021. urtean, gehien errepikatutako gaiak honako hauek izan dira:

1. **"Ikasleen ebaluazioa"**: Aurten ere, ebaluazio prozesuak, oro har, eta, kalifikazioak berrikusteko prozedura, bereziki, ikasleek egindako kontsulta gehienek gaia izan dira. Gai horren inguruan, ikasleek aldezelearengana jotzen dute, unibertsitateko araudiak aitortzen dizkien eskubideen inguruko zalantzak argitzeko. Horren harira, era askotako gaiei buruzko kontsultak jaso dira: ebaluazio sistemei buruzkoak, kalifikazioak erreklamatzeko prozedurari buruzkoak, osasun arazoak direla eta azterketaren data ofiziala aldatzeko aukerari buruzkoak, egindako erreklamazioen gaineko erabakietan emandako arazoien nahikotasunari buruzkoak....
2. **"Irakaskuntza telepresentziala"**: Atal honetan biltzen diren ikasleen kexen edo kontsulten jatorria ezohiko urte honetan ikastegietan eskaini den presentzialtasun maila izan da. 2021. urtean emandako irakaskuntzaren zati handi bat, 2020an bezala, modu erdipresentzialean eman da, eta horri lotuta era eta eduki askotako kekek jaso dira. Alde batetik, ikasle batzuek haserrea adierazi dute beren ikasketetako presentzialtasun maila txikia izan zela uste dutelako, eta egoera hori bidegabetzat jo dute, aurrez aurreko eskola gehiago eskaini dituzten beste fakultate edo eskoletako ikasleekin alderatuta. Ildo berean kokatzen ziren —eta, beraz, epigrafe beraren barruan sartu dira—

eskola telepresentzialen jarraipenerako zailtasunen berri ematen zuten keak; zailtasun horiek, oro har, arazo teknikoen eraginez ematen ziren, hala nola soinu arazoak, ikusteko edo konektatzeko ezintasuna...

Alabaina, atal honetan sartu da ere kontrakoa zioen kexa bat. Kasu horretan, ikaslea atsekabetuta zegoen irakasleek uko egiten ziotelako irakaskuntza modu telepresentzialean emateari, ikasgelan denbora luzez egotea eragozten zion ebakuntza baten ondoren ikaslea suspertzen ari zen arren. Irakasleak era guztietako erraztasunak eskaintzen zizkion eskolak urrunetik jarraitzeko (apunteak, ariketak eta bestelako irakasmateriala), baina ez zegoen prest irakaskuntza streaming bidez emateko, uste zuelako jarduera mota hori astunegia zela gainerako ikasleentzat (denbora galtzea kamerak pizten, azalpenak eman bitartean kamerari begiratzeko beharra...).

3. **"Irakaskuntzaren kudeaketa"**: gai hauen barruan alderdi administratiboak (talde eta irakasgai aldaketak...) eta akademikoak sartzen dira (irakasgai bat emateko edo ebaluatzeko moduarekiko desadostasuna, irakasgaiak matrikulatzeko aurrebaldintzak aldatzea...).
4. **"Premia bereziak dauzkaten pertsonen arreta"**: Atal honetan premia bereziak dituzten ikasleengandik jasotako keak bildu dira. Horrelakoetan, ez daude ados haien esku jarritako egokitze baliabideekin, bai eskatutako ordutegi osoan ematen ez direlako, bai emandako baliabidea eskuragarri ez dagoelako, laguntzarako pertsona kontratatuzeko izandako zailtasunen eraginez.
5. **"Irakasleen portaera"**: epigrafe honetan bildutako gaietan, aipatutako gorabeheretan ikasleek kontsideratzen dute irakasleek begirune edo errespetu faltaz jokatu dutela irakaskuntza edo ebaluazio prozesuan.
6. **"Mugikortasuna"**: hemen jasotako gaien jatorria mugikortasunari lotuta dago, hala nola mugikortasuna ukatzea, onartutako mugikortasunari uko egitearen ondorioak, truke programetan parte hartzeko baldintzak ez betetzea...
7. **"Kanpoko praktikak"**: hemen jasotako arazoak lotuta daude, besteak beste, hartutako konpromisoak ez betetzeari, esleitutako praktikak baliogabetzeari, praktiken aldia aldatzeari...
8. **"Doktorego tesia"**: epigrafe honen barruan sartutako gaiak graduondoko ikasleek planteatu dituzte, eta tutorearen jarduera zalantzan jartzen zuten tesien zuzendaritzan, edo zuzendaritza zeregin horri lotutako betebeharrak ez betetzea aipatzen zen.

2. taula. Ikasleek planteatutako aztergai motak

Gaia	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Arautegia aplikatzeko modua	-	6	-	-	-	-	1	-	-	-
Arautegia ez betetzea	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-
Arazoak agintariekin	1	-	2	-	-	-	-	-	-	-
Arazoak lankideekin	-	-	-	-	6	-	-	1	-	-
Baliozkotzeak eta kredituak aitortzea	-	6 (1)	1	1	2	4	2	2	-	-
Bekak	-	3 (1)	3	4 (1)	1	4	4	6	2	-
Datuak babestea	1	-	-	1	-	-	-	1	-	-
Diziplina arautegia	1	-	1	-	1	-	-	-	1	-
Doktore aurreko kontratua	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Doktorego tesia	2	-	1	5	2	-	1	2	1	3
Ebaluazio berezia	6	4	3	5	3 (1)	-	1	-	-	2
Espedientea lekuz aldatzea	-	-	-	-	-	2	1	-	-	2
Etika akademikoa	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-
Euskarazko arreta	-	-	-	-	1	1	-	-	-	-
Euskarazko irakaskuntza	-	-	2	-	-	-	1	-	-	-
Ezgaitasunaren arreta	-	-	-	-	1	1	-	-	-	3
Familia kontziliazioa	-	-	-	-	1	-	-	-	1	1
Genero indarkeria	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-
Gradu/Master amaierako lana	1	-	4	2	1	3	3	2	3	3
Gradura egokitzea	2	3	3	-	-	-	-	-	-	-
Greba	-	-	2	-	-	-	-	-	1	-
Ikasketetarako sarbidea	5 (1)	1 (1)	-	1	1	2	2	-	4	-
Ikasleen ebaluazioa	7 (1)	10	11	16	14	33	8	13	20	8
Ikasleen ordezkaritza	-	2	3	1	1	-	1	1	1	-
Ikasleentzako zerbitzuak	-	-	-	-	-	-	2	-	-	-
Ikastegiko zuzendariaren portaera	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-
Informazioa eskuratzeko eskubidea	-	-	-	-	-	-	-	1	2	-
Intimiteterako eskubidea	-	1	-	-	-	-	1	-	-	-
Irakaskuntza ingelesez	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Irakaskuntza telepresentziala	-	-	-	-	-	-	-	-	-	5
Irakaskuntzaren kudeaketa	-	3	10	15	7	9	4	5	5	4
Irakasleen portaera	1	4	4	2	1	2	5	4	2	3
Jendaurreko arreta	-	3	-	2	-	-	-	2	1 (1)	-
Kanpoko praktikak	-	2	3	2	2	2	3	1	1	3
Kredituak aitortzea	-	-	-	-	-	-	-	-	5	1
Lan baldintzak	-	-	-	-	-	3	-	-	-	-
Lankideen portaera	-	1	1	-	1	2	1	-	-	-
Matrikula	1	4	5	3	4	7	6	7	4	1
Matrikula baliogabetzea	-	2	-	1	-	-	1	1	3	1
Mugikortasuna	-	-	2	1	-	-	4	4	1	3
Ondarezko erantzukizuna	-	-	-	-	-	1	-	-	-	-
Premia bereziak dituzten pertsonentzako arreta	-	-	-	1	1 (1)	-	-	-	1	-
Prezio publikoak	3 (1)	2	1	2	2	2	2	1	1	1
Tituluak eta ziurtagiriak	-	1	1 (1)	2	-	1	1	-	2	2
Tratu baztertzaila	-	-	1	-	-	1	-	-	-	-
Tratu berdintasuna	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-
UPV/EHUn Jarraitzeko Arauak	-	-	-	-	-	-	2	3	2	-
Zerbitzuen portaera	-	2	-	-	-	-	-	-	-	-
Bestelakoak	2	2	1	-	1	1	-	2	1	3
Guztira	33(3)	62(3)	68(1)	67(1)	54(2)	81(0)	57(0)	59(0)	67(1)	51(0)

Irakasle-ikertzaileen kolektiboan (3. taula), gehien errepikatzen diren gaiak lotuta daude unibertsitate sailtako bizikidetzaz arazoei eta sailtan plazak lortzeko eta/edo promozionatzeko prozesuetan sortutako arazoei. Horren harira, 2021. urtea ez da desberdina izan, eta ikusten da eskaera gehien eragin dituen gaia, alde handiz, "Arazoak lankideekin" izenekoak izan dela. Bigarren lekuan, "Ordezkapen plaza/poltsei" lotutako gaiak ageri dira.

Lankideekiko arazoak gaiaren barruan, sailaren barruko bizikidetzaz arazoak edo gorabeherak planteatzen dituzten aztergaiak sartzen dira. Gatazka horien jatorria askotarikoa da, hala nola lan bat argitaratzeko egilekideen arteko gorabeherak, laborategiko materialaren erabilerari lotutako arazoak edo bulegoen esleipenari lotutakoak, intimitatean sartzeari eta isilpeko datuak ezagutzera emateari lotutako salaketak, edo salaketa faltsuak.

Ordezkapen plaza/poltsetan sartzeari lotuta irekitako kasuetan, saileko kideren baten desadostasunak aipatzen ziren bai plaza hutsak betetzeko erabakiarekin, bai eskaintako plazen epaimahaia eratzeko erabakiarekin, edo, bestela, irregulartasunen bat salatzen zuten hautagaitzen baremazioan eta kontratuen esleipenean.

3. taula. Irakasle-ikertzaileen aztergaiak

Gaia	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Aplikazio informatikoen funtzionamendua	-	-	-	-	-	-	1	5	1	-
Arautegia aplikatzeko modua	-	4	2	-	-	2	2	3	-	1
Arazoak agintariekin	1	-	1	-	-	-	-	1	-	-
Arazoak lankideekin	4	17	13	5	3	3	6	2	5	10 (1)
Azpiegiturak	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Baimenak	-	-	-	-	-	-	1	-	1	-
Barne kontrola	-	-	-	1	-	-	-	-	-	-
Bateraezintasunak	-	-	-	-	-	1	2	1	-	-
Bekak	-	-	-	1 (1)	1	2	-	-	-	-
Burokrazia	-	-	-	-	2	-	-	-	-	-
Datuak babestea	-	-	-	1	-	-	1	2	3	2
Diziplina arautegia	-	-	-	-	-	2	2	-	3	1
Doktore aurreko kontratua	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Doktorego tesia	-	-	3 (1)	1	-	2	1	3	-	2
Ebaluazio Epaimahaiak hautatzea	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-
Erosketak	-	-	-	1	-	-	-	-	-	-
Errektoregoaren portaera	-	-	1	1	-	-	-	-	-	-
Erretiroa	1	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Etika akademikoa	1	-	2(1)	1	-	-	2	3	-	-
Euskarazko arreta	-	-	-	-	1	-	-	-	-	-
Euskarazko irakaskuntza	-	-	-	-	-	-	1	-	-	-
Familia kontziliazioa	1	-	-	1	-	1	1	-	1	-
GAUREn arazoak	1	1	-	-	-	-	-	1	-	-
Gehigarriko osagarriak	1	2	1	3	-	3	-	-	-	3(1)
Gobernu eta ordezkari organoak	-	-	-	-	-	-	-	1	-	-
Gradura egokitzea	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Greba	-	-	-	-	1	-	-	-	-	-
Hauteskunde araubidea	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-
Hierarkian gorago dagoenaren portaera	-	-	-	-	2	-	-	-	-	-
Ikasketetarako sarbidea	-	-	-	-	-	-	-	1	-	1
Ikasleen ebaluazioa	-	2 (1)	2 (1)	-	3	3	3	1	1	1
Ikasleen portaera	1	3	2	2	2	2	2	2	-	1
Ikastegiko zuzendariaren portaera	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-
Ikerketa proiektuak	1	1	-	-	-	-	-	1	-	2
Ikertaldeak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Informazioa eskuratzeko eskubidea	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Intimitate, ohore eta norberaren irudia besteko eskubidea	-	-	-	-	-	-	-	-	3	-
Irakaskuntza betebeharrak	-	-	-	-	-	-	-	-	2	-
Irakaskuntzaren kudeaketa	-	-	2	-	-	1	1	1	1	1
Irakaslanaren banatzea	5	3	6	4 (1)	8 (2)	5	7 (1)	5	4	3
Irakaslanaren ebaluazioa	-	-	-	1	3(1)	2	-	2	3	-
Irakasleen Hobekuntzarako Plana	-	-	2	-	-	1(1)	-	-	-	-
Irakasleen portaera	-	3	-	-	-	-	2	2	1	1
JAP/Kredituen aitortza	2 (1)	2	-	-	2	-	-	-	1	-
Jazarpena/Jazarpen portaerak	8	2 (1)	2	2	1	-	-	-	-	-
Jendaurreko arreta	-	-	-	-	-	1	1	-	-	-
Katedra askatasuna	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-
Lan baldintzak	3	2	3	2	6	10 (1)	1	3 (1)	2	3
Lanen ebaluazio etikoa	-	-	-	-	1	-	-	-	-	-
Matrikula baliogabetzea	-	-	-	-	-	1	1	-	-	-
Merezimenduen ebaluazioa	-	-	-	-	-	-	-	-	-	3
Ordezkaritza organoaren portaera	-	-	-	1	-	-	-	-	-	1
PIF ordainsariak	-	1	2	-	-	-	-	-	-	-
Plazak/Ordezkapen poltsak	4 (1)	5 (1)	4 (3)	7 (1)	2	8	6	5	6	6(1)
Prebentzio eta segurtasun neurriak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	2
Premia bereziak dituzten pertsonentzako arreta	-	-	-	-	-	-	-	-	-	2
Presoentzako arreta	-	-	-	1	-	-	-	-	-	-
Prezio publikoak	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Saileko zuzendariaren portaera	-	-	2	2	1	-	-	-	-	-
Tituluak eta ziurtagiriak	-	-	-	-	1	-	-	-	-	-
Tratu berdintasuna	-	-	1	-	-	-	2	1	2	-
Zerbitzu ordainak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Zerbitzuen portaera	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Bestelakoak	3	1	3	4	1	1	2	2	1	6
Guztira	40(2)	50(3)	56(6)	42(3)	41(3)	51(2)	48(1)	48(1)	43(0)	56(3)

AZPko langileei dagokienez (4. taula), aurten kolektibo honen kezka iturri nagusiak honako hauek izan dira: plazen sarbidea, ordezkapen poltsen osiera eta deialdia eta eskuratutako lanpostuaren lan baldintzak, funtsean lanaldiari, ordutegiei eta zerbitzua telelaneko modalitatean emateko baimenei dagokienez.

4. taula. AZPko langileen aztergaiak

Gaia	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Arautegia aplikatzeko modua	-	-	1	-	-	-	2	1	1	-
Arautegia ez betetzea	-	1	-	1	-	-	-	-	-	-
Arazoak lankideekin	-	1	-	-	1	-	-	-	-	-
Azpiegiturak	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-
Bateraezintasunak	-	-	-	-	-	-	1	-	-	-
Burokrazia	-	-	-	-	-	-	-	1	-	-
Datuak babestea	-	-	-	-	-	-	1	1	-	-
Diziplina arautegia	-	-	-	-	1	-	-	-	-	1
Errektoregoaren portaera	-	2 (1)	-	-	-	-	-	-	-	-
Erretiroa	-	1	-	1 (1)	-	-	-	-	-	-
Euskarazko irakaskuntza	-	-	-	-	1	-	-	-	-	-
Gatazka, hierarkian gorago dagoen pertsonarekin	-	-	-	1	-	-	-	-	-	1
Gizarte arretak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Hierarkian gorago dagoenaren portaera	-	-	2	1	2	1	2	1	1	-
Ikasleen ebaluazioa	-	-	-	-	-	-	-	-	2	-
Ikasleen portaera	-	-	-	1	-	-	1	-	-	-
Informazioa eskuratzeko eskubidea	2	-	2	2 (2)	-	-	-	-	1(1)	-
Intimitate, ohore eta norberaren irudia besteko eskubidea	-	-	-	-	-	-	1	-	2	-
Irakasleen portaera	-	-	-	-	1	-	-	-	-	-
Jazarpena/Jazarpen portaerak	1	-	1	-	-	-	-	-	-	-
Kide bakarreko organoak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Lan baldintzak	4	2	2 (1)	5 (1)	6 (1)	3 (1)	4	4(1)	1	4
Lankideen portaera	-	-	-	-	-	4	-	-	-	-
Lanpostuen balorazioa	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1(1)
Merezimenduen ebaluazioa	2	-	-	1 (1)	-	1	-	-	-	-
Plazak/Poltsak/Lekualdatze lehiaketak	2	1	3 (1)	2	-	3(1)	2	6	3	3(2)
Prebentzio eta segurtasun neurriak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Prezio publikoak	-	-	-	-	1	-	-	-	-	-
Saileko zuzendariaren portaera	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-
Telelana	-	-	-	-	-	-	-	-	-	2
Tituluak eta ziurtagiriak	-	-	-	-	-	-	1	1	-	-
Bestelakoak	-	1	1	1	1	-	-	3	1	-
Guztira	11(0)	9(1)	14(2)	16(5)	14(1)	12(2)	15(0)	18(1)	12(1)	15(3)

Azkenik, "Beste batzuk" kolektiboan (5. taula) aztergai gehienek gaiak "Ikasketarako sarbidea" eta "Ordezkapen plazak/poltsak" dira, berriro ere.

"Ikasketarako sarbidea" gaiaren barruan, UPV/EHUK eskaintako ikasketetan onartua izateari lotutako arazoak planteatzen dira, hala nola lesio baten ondorioz sarbiderako proba fisikoak egiteko ezintasuna, onarpen prozesua amaitu ondoren plaza hutsak betetzeko prozedura, eta beste herrialde batean egindako ikasketak baliokidetzeko arazoak.

"Ordezkapen plazak/poltsak" gaiaren barruan, gaur egun UPV/EHUrekin zerbitzu loturarik ez duten pertsonen planteatutako auziak biltzen dira. Pertsona horiek unibertsitatearekin harremanetan daude hautagaitza aurkeztu dutelako lanpostuen zerrendako plaza bat eskuratzeko, AZPko langileentzako lan poltsa batean sartzeko edo irakasle-ikertzaileen ordezkapen zerrendetan sartzeko. Oro har, dagozkion prozedurak arautzen dituen araudia aplikatzeari buruzko kontsultak planteatzen dituzte, edo, haien iritziz, plazen esleipenean edo deialdien kudeaketan izandako irregulartasunak salatzen dituzte.

5. taula. "Beste batzuk" kategoriaren aztergaiak

Gaia	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Arautegia aplikatzeko modua	-	-	-	-	-	-	1	-	-	-
Arazoak agintariekin	-	1 (1)	-	-	-	-	-	-	-	-
Baliozkotzeak eta kredituak aitortzea	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Bekak eta laguntzak	3 (1)	1	-	1	2	2	1	1	1	-
Datuak babestea	-	-	-	1	-	-	-	-	-	-
Diziplina arautegia	-	-	-	-	1	1	1	-	-	1
Doktorego tesia	-	-	-	-	-	-	-	1	-	1
Erretiroa	-	1	-	-	-	-	-	1	-	-
Espedientea lekuz aldatzea	-	-	-	-	-	1	-	1	-	2
Etika akademikoa	-	-	-	-	-	1	-	-	1	-
Gardentasuna eta gobernu ona	-	-	-	-	-	1	-	-	1	-
GAURen arazoak	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-
Gradu/Master amaierako lana	-	-	-	-	1	-	-	-	-	-
Gradura egokitzea	-	-	-	-	1	-	-	-	-	-
Ikasketetarako sarbidea	-	3	7	4	1	3	3	1	6	6
Ikasleen ebaluazioa	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-
Ikasleen portaera	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-
Ikerketa proiektuak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Informazioa eskuratzeko eskubidea	-	-	-	-	-	-	1	-	-	1
Irakaskuntzaren kudeaketa	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-
Iraunkortasunari buruzko arautegia	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Jazarpena/Jazarpen portaerak	-	-	2	1 (1)	-	-	-	-	-	-
Kanpoko praktikak	-	-	-	-	-	-	1	-	-	1
Kontratazioa	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Lan baldintzak	-	-	1	-	-	1	-	-	-	-
Matrikula	-	-	2	-	-	-	-	-	2	-
Matrikula baliogabetzea	-	-	-	-	-	1	-	-	-	-
Merezimenduen ebaluazioa	3	-	-	-	-	-	-	-	1	-
Plazak/Ordezkapen poltsak	7 (2)	6	4 (1)	2	1	1	3	3	5	6(1)
Presoentzako arreta	-	-	-	1	-	-	-	-	-	1
Prezio publikoak	-	-	1	-	-	1	-	-	1	-
Tituluak eta ziurtagiriak	-	1	-	1	1	4 (1)	3	2	1	-
Unibertsitatera sartzeko probak	-	-	3	1	-	-	2	-	1	2
Zerbitzu ordainak	-	-	-	-	-	-	-	1	-	-
Bestelakoak	-	1	2	2 (1)	-	3	2	2	-	2
Guztira	13(3)	15(1)	26(1)	14(2)	8(0)	20(1)	18(0)	13(0)	20(0)	26(1)

1.9. Bulegoaren esku hartzea

Bulegoan planteatu diren 148 aztergaien artetik, kontsulta guztiek (106, jada esan dugunez) erantzun egokia izan zuten.

Jasotako 39 kexen artetik 8 ez ziren onartuak izan: 4 kexa ez ziren onartu, aldeztu aurretik prozedura arrunta agortuta ez zegoelako (ez ziren premiazkoak), 1 gaiaren gaineko eskumenik ez genuelako, 2 dagoeneko konpondutako gaiak zirelako, eta 1 ez zelako UPV/EHUko organo edo zerbitzuen funtzionamenduei buruzkoa.

2021ean onartu gabeko kexen kopurua txikiagoa izan da 2020an baino, kexen kopurua berbera jaso bada ere. Onartu gabekoen artean, gehienak gertatu dira eskatzaileak ez zuelako agortu oraindik ezarritako prozedura. Erakundearen araudia aintzat hartuta, gogoratu beharko dugu aldeztuak, salbuespenezko kasuetan izan ezik —premiazko gai bat denean—, ez duela esku hartzen bide eta prozedura arruntak agortu baino lehen; izan ere, zor dugun erakunde errespetuak gaiaren eskumena duen instantziaren ordezkari jarraitzea eragozten digu. Nolanahi ere, gai honi dagokionez, Ondorioen atalean ohar bat jaso dugu.

Beraz, 31 kexa onartu ziren (jasotako % 79,5). Horien artetik, 19 ezetsi ziren, azterketa xehe bat egin ondoren Zuzenbideak kexaren nahiak babesten ez zituela kontsideratu zelako. Beraz, azkenean 12 kexa baietsi ziren (onartutako % 38,7). Seigarren taulan, datu horiek aurreko urteetakoekin konparatzen dira.

6. taula Jasotako, onartutako eta baietsitako kexak

	Jasoak	Onartuak (jasotako %)	Baietsiak (onartutako %)
2012	72	49 (% 68,1)	34 (% 69,4)
2013	65	37 (% 56,9)	27 (% 73,0)
2014	74	37 (% 50,0)	21 (% 56,8)
2015	50	32 (% 64,0)	20 (% 62,5)
2016	47	26 (% 55,3)	17 (% 65,4)
2017	41	37 (% 90,2)	18 (% 48,7)
2018	33	30 (% 90,9)	14 (% 46,7)
2019	31	28 (% 90,3)	16 (% 57,1)
2020	39	26 (% 66,7)	11 (% 42,3)
2021	39	31 (% 79,5)	12 (% 38,7)
Guztira	491	333 (% 67,8)	190 (% 57,1)

Gauzak horrela, azken urte honetan orotara jasotako kexen kopurua joan den urteko maila berean mantendu da. Kexa gehiago izapidetu dira, baina onartutako kexen kopurua 2020koaren berbera izan da, eta onetsitako kexen ehunekoa txikiagoa izan da aurreko urteetako baino.

1.9.1. Baietsitako kexen gaiak

Zazpigarren taulak baietsi diren kexen gaiak biltzen ditu. Bertan, hondo urdin argiz nabarmentzen dira gutxienez hiru urtetan errepikatu direnak.

Ikasleen kolektiboan, 5 kexa baietsi dira, askotariko gaitan sailkatuta (irakaskuntzaren kudeaketa, GRAL/MAL, kredituen aitortza eta premia bereziak dauzkaten pertsonentzako arreta). Irakasle-ikertzaileei dagokienez, unibertsitateko kideen portaera salatzen zuten bi kexa baietsi dira. Bestetik, AZPko langileen kolektibotik gizarte arretei eta laguntzei lotutako kexa bat baietsi zen. Azkenik, "Beste batzuk" kolektiboan, hiru kexa baietsi ziren, ikasketen sarbideari, espedienteak lekuz aldatzeari eta ordezkapen poltsei lotutakoak.

7. taula. Baietsitako kexen gaiak

	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	Guztira
Arautegia aplikatzeko modua	-	2	-	-	-	-	-	-	-	-	2
Arautegia ez betetzea	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-	1
Arazoak lankideekin	-	-	-	-	2	1	-	-	-	-	3
Bekak	-	1 (1)	-	1 (1)	-	-	-	1	-	-	3 (2)
Doktorego tesia	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-	1
Ebaluazio berezia	3	-	-	-	1 (1)	-	-	-	-	-	4 (1)
Euskarazko arreta	-	-	-	-	-	1	-	-	-	-	1
Gradu/Master amaierako lana	-	-	-	1	-	-	-	-	-	1	2
Ikasketetarako sarbidea	4 (1)	-	-	-	-	-	-	-	-	-	4 (1)
Ikasleen ebaluazioa	1	2	-	1	3	3	-	-	3	-	13
Intimitaterako eskubidea	-	1	-	-	-	-	1	-	-	-	2
Irakaskuntzaren kudeaketa	-	-	1	-	-	-	1	-	-	2	4
Irakasleen portaera	-	-	-	-	-	-	2	-	-	-	2
Jendaurreko arreta	-	2	-	-	-	-	-	-	-	-	2
Kanpoko praktikak	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-	1
Kredituak aitortzea	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1	1
Kredituen aitortza	-	2 (1)	-	-	-	-	-	-	-	-	2 (1)
Matrikula	-	-	-	-	-	1	-	1	1	-	3
Mugikortasuna	-	-	-	1	-	-	-	1	-	-	2
Premia bereziak dituzten pertsonentzako arreta	-	-	-	-	-	-	-	-	-	2	2
Presoentzako arreta	-	-	-	-	1 (1)	-	-	-	-	-	1 (1)
Prezio publikoak	1	1	-	1	1	-	-	-	-	-	4
Tituluak eta ziurtagiriak	-	-	1 (1)	-	-	-	-	-	-	-	1 (1)
Bestelakoak	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Ikasleak guztira	10 (1)	11(2)	5(1)	5(1)	8(2)	6(0)	4(0)	3 (0)	4(0)	6(0)	62(7)
Aplikazio informatikoen funtzionamendua	-	-	-	-	-	-	-	2	-	-	2
Arautegia aplikatzeko modua	-	1	1	-	-	2	-	-	-	-	4
Arazoak lankideekin	-	3	-	-	-	-	1	1	-	1	6
Baimenak	-	-	-	-	-	-	1	-	-	-	1
Bekak	-	-	-	1 (1)	-	-	-	-	-	-	1 (1)
Burokrazia	-	-	-	-	2	-	-	-	-	-	2
Datu pertsonalak babestea	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-	1
Erosketak	-	-	-	1	-	-	-	-	-	-	1
Erretiroa	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Etika zientifikoa (irakasleak)	-	-	1 (1)	-	-	-	-	-	-	-	1 (1)
Euskarazko arreta	-	-	-	-	1	-	-	-	-	-	1
GAURen arazoak	-	-	-	-	-	-	-	1	-	-	1
Gehigarritzako osagarriak	-	2	-	-	-	-	-	-	-	-	2
IHP	-	-	1	-	-	1 (1)	-	-	-	-	2 (1)
Ikasleen ebaluazioa	-	1 (1)	-	-	-	-	-	-	-	-	1 (1)
Ikasleen portaera	1	-	-	-	-	1	-	-	-	-	2
Ikastegiko zuzendariaren portaera	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-	1
Intimidade, ohore eta norberaren irudia besteko eskubidea	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-	1
Irakaslana banatzea	2	-	1	1 (1)	2 (2)	-	1	-	-	-	7 (3)
Irakaslanaren ebaluazioa	-	-	-	-	1(1)	-	-	2	-	-	3 (1)
Irakasleen portaera	-	-	-	-	-	-	1	1	-	-	2
JAP/Kredituen aitortza	2 (1)	-	-	-	-	-	-	-	-	-	2 (1)
Jazarpena/Jazarpen portaerak	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Jendaurreko arreta	-	-	-	-	-	1	1	-	-	-	2
Lan baldintzak	2	-	-	1	1	2 (1)	-	1(1)	-	-	7 (2)
Ordezkaritza organoaren portaera	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1	1
PIF ordainsariak	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-	1
Plazak/Ordezkapen poltsak	-	2 (1)	3 (1)	2 (1)	-	-	-	-	2	-	9 (3)
Prezio publikoak	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Saileko zuzendariaren portaera	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-	1
Tratu berdintasuna	-	-	-	-	-	-	1	1	-	-	2
Irakasle-ikertzaileak guztira	9(1)	10(2)	10(2)	6(3)	7(3)	7(2)	6(0)	9(1)	4(0)	2(0)	70(14)

7. taula. Baietsitako kexen gaiak (jarraipena)

	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	Guztira	
Arautegia aplikatzeko modua	-	-	-	-	-	-	-	1	-	-	1	
Arautegia ez betetzea	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-	1	
Bateraezintasunak	-	-	-	-	-	-	-	1	-	-	1	
Errektoregoaren portaera	-	1 (1)	-	-	-	-	-	-	-	-	1 (1)	
Erretiroa	-	-	-	1 (1)	-	-	-	-	-	-	1 (1)	
Gizarte Arretak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1	
Hierarkian gorago dagoenaren portaera	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-	1	
Informazioa eskuratzeko eskubidea	1	-	1	2 (2)	-	-	-	-	1(1)	-	5 (3)	
Intimitate, ohore eta norberaren irudia besteko eskubidea	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1	1	
Irakasleen portaera	-	-	-	-	-	1	-	-	-	-	1	
Lan baldintzak	3	1	-	2 (1)	1 (1)	2 (1)	1	2(1)	-	-	12 (4)	
Merezimenduen ebaluazioa	1	-	-	1 (1)	-	-	-	-	-	-	2 (1)	
Plazak/Poltsak/Lekualdatze lehiaketak	2	-	1 (1)	-	-	1 (1)	-	1	-	-	5 (2)	
Bekak		1(1)	-	-	-	-	-	-	-	-	1 (1)	
Espedientea lekuz aldatzea	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1	
Gardentasuna eta gobernu ona	-	-	-	-	-	1	-	-	-	-	1	
Ikasketetarako sarbidea	-	2	2	1	-	-	-	-	-	-	6	
Jazarpena/Jazarpen portaerak	-	-	-	1 (1)	-	-	-	-	-	-	1 (1)	
Kontratazioa	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-	1	
Merezimenduen ebaluazioa	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1	
Plazak/Poltsak/Lekualdatze lehiaketak	6 (2)	-	1 (1)	-	-	-	-	-	-	1	9 (3)	
Tituluak eta ziurtagiriak	-	-	-	-	-	1 (1)	-	1	-	-	2 (1)	
Bestelakoak	-	-	-	1 (1)	-	-	-	1	-	-	2 (1)	
GUZTIRA		34(5)	27(5)	21(5)	20(11)	17(6)	18(5)	14(0)	16(2)	11(1)	12(0)	190(40)

1.9.2. Baietsitako kexen jomuga diren kolektiboak eta organoak

Jarraian, 8. taulan, baietsitako kexen jomuga zer organo eta kolektibo izan diren ikus dezakegu (sei urtetan edo gehiagotan agertzen direnak nabarmendu dira).

8. taula. Baietsitako kexen jomuga diren kolektiboak eta organoak

Kolektiboak eta organoak	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Argitalpen Zerbitzua	-	-	-	-	1	-	-	-	-	-
Arkitektura GETko Zuzendaritza	-	1	-	-	-	-	-	-	-	1
AZPko langileak	-	-	-	-	-	1	-	-	-	-
Bilboko Hezkuntza F. Dekanotza	-	-	-	1	-	-	-	-	-	-
Bilboko Ingeniaritza E. Zuzendaritza	1	-	-	-	-	-	-	-	-	2
Bilboko Ingeniaritza GETeko Idazkaritza	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Bizkaiko Campuseko Errektoreordetza	-	-	-	-	-	-	-	1	-	-
DBHko Irakasleen Prestakuntzako M. Zuzendaritza	1	-	-	-	1	-	-	-	-	-
Doktorego E. *	-	1	1	-	1	-	-	1	-	-
Ekonomia eta Enpresa F. Dekanotza	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-
Epaimahai Berezia	-	-	-	-	1	-	-	-	-	-
Erosketen atala	-	-	-	1	-	-	-	-	-	-
Errektoregoa	4	3	1	1	1	-	-	-	-	-
Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errekt.	1	-	-	1	1	-	-	1	-	-
Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzua	-	-	-	-	-	-	-	-	-	2
Farmazia F. Dekanotza	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Gasteizko Erizaintzako UEko Zuzendaritza	-	-	-	-	-	-	1	-	-	-
Gerentzia	8	1	-	-	1	1	1	-	2	2
Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetza	-	-	-	-	-	-	1	-	-	-
Gizarte eta Komunikazio Zientzien F. Dekanotza	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Graduaren eta hezkuntza berrikuntzaren arloko Errekt.	6	3	1	-	-	1	1	-	-	1
Graduondokoaren eta Etengabeko Prestakuntzaren Errekt.	-	-	-	-	-	1	-	1	-	-
Hezkuntza eta Kirol F. Dekanotza	-	-	-	1	-	-	-	-	-	1
Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia F. Dekanotza	-	-	-	-	-	-	-	1	-	-
Idazkaritza Nagusia	1	1	1	3	-	-	1	-	-	-
Ikaslea	1	1	-	-	2	2	-	-	-	-
Ikasleen eta Enplegarritasunaren arloko Errektoreordetza	-	-	-	-	-	-	1	-	-	-
Ikerketaren arloko Errektoreordetza	2	1	1	2	1	-	-	1	-	-
IKTen Gerenteordetza	-	-	-	-	-	1	-	3	-	-
Ikuskizunaren Arteak eta Zientziak M. Zuzendaritza	-	-	-	1	-	-	-	-	-	-
IMH Ingeniaritza Duala UE	-	-	-	-	-	2	-	-	-	-
Irakasle-ikertzaileak	-	5	1	-	3	1	4	2	2	1
Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetza	6	3	5	3	3	3	2	2	1	-
Itsas Ingeniaritzako Masterraren Zuzendaritza	-	-	-	1	-	-	-	-	-	-
Kanpoko Praktiken Zuzendaritza	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-
Komunikazio Bulegoa	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-
Legezko ordezkaria	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Master Lanbideratzailearen Zuzendaritza	-	-	-	-	-	2	-	-	-	-
Medikuntza eta Erizaintza F. Dekanotza	-	1	1	-	-	-	-	2	1	1
Pertsonaleko Gerenteordetza	-	1	1	3	-	1	1	1	2	-
Psikologia F. Dekanotza	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Psikologia Fakultateko Idazkaritza	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Saileko zuzendariak	2	-	4	-	1	-	1	-	1	-
Sarbidea	-	-	2	1	-	-	-	-	-	-
UPV/EHU – Osakidetza Batzorde Parekidea	-	-	-	-	-	1	-	-	-	-
Zerbitziburua	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-
Zientzia eta Teknologia F. Idazkaritza	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Zuzenbide F. Dekanotza	-	-	1	1	-	1	-	-	-	-
Guztira	34	27	22	20	17	18	14	16	11	12

* 2019ra arte, Master eta Doktorego Eskolatik planteatutako kexak sartzen dira.

1.10. Jasotako erantzuna

Kexak konpontzeko jo behar izan dugun organoek edo pertsonak emandako erantzuna positiboa izan da gehienetan: baietsitako 12 kexetatik 10etan pertsonak edo instantziek, haiengana jo dugunean, bulegoaren planteamenduak eta gomendioak onartu dituzte. (Ikus 9. taula).

9. taula. Eraginpeko organoek emandako erantzuna

Erantzuna	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	Guztira
Ona	27	22	15	18	15	16	12	16	10	10	161
Ona, neurri batean	3	2	3	2	2	1	-	-	-	1	14
Ezezkoa	4	3	3	-	-	1	2	-	1	1	15
Guztira	34	27	21	20	17	18	14	16	11	12	190

1.11. Inplikaturako zerbitzuen eta arduradunen lankidetzak

Urteko memoriaren aurkezpenak ematen digun aukeraz baliatuta, eskerrak eman nahi dizkiegu, berriro ere, Aldezlearen zerbitzuarekin kolaboratu duten eta gure lana ongi burutzen lagundu diguten pertsona guztiei: sail eta ikastegien idazkaritzetako langileak, ikastegiko zuzendariak eta dekanok, saileko zuzendariak, zerbitzuetako arduradunak, Errektoretza Taldeko kideak, ikasleak, etab.

2. Aldezlearen beste eginkizun batzuk

Kontsultak eta kexak jasotzeko, izapidetzeko eta ebazteko ohiko jardueraz edo bitartekaritza prozesuez gainera, jarraian aipatzen ditugun jarduerak egin ditugu.

2.1. Unibertsitateko Defendatzaileen Estatuko XXIII. Topaketa

Azaroaren 10etik 12ra, Unibertsitateko Defendatzaileen XXIII. Topaketa egin zen Cadizko Unibertsitatean. Gai hauek aztertu ziren:

- 1) Bitartekaritza/kontziliazioa
- 2) Elkarren arteko errespetua erreklamazioen kudeaketan.
- 3) Presentzialtasun berriaren erronkak eta aukerak, unibertsitatean.

2.2. CEDUren Jardunaldi Teknikoa

2021eko maiatzaren 7an, Unibertsitateko Defendatzaileen Estatutako Konferentziak jardunaldi tekniko bat antolatu zuen, modu birtualean, eta bertan, gai hau landu zen:

- 1) Irakaskuntza sarean eta datuen babesa: unibertsitateko kideen eskubideak bermatzea.

2.3. CEDUren XIV. Ohiko Batzar Nagusia

2021eko azaroaren 12an, Unibertsitateko Defendatzaileen Konferentziaren XIV. Batzar Nagusia egin zen, Cadizko Unibertsitatean. Batzarrean, CEDUren presidente izendatu zuten Milagros Estilita Alarios Valladolideko Unibertsitatearen defendatzailea, eta batzorde betearazlearen kide berriak hautatu zituzten.

2.4. CEDUren Ezohiko Batzar Nagusiak

2021eko ekainaren 11n, Unibertsitateko Defendatzaileen Estatuko Konferentziak (CEDU) Ezohiko Batzar Nagusi bat antolatu zuen modu birtualean, honako aztergaien zerrenda hau lantzeko:

- 1) Unibertsitate bizikidetzari buruzko Legearen Aurreproiektua aztertzea.
- 2) Unibertsitateko bizikidetzari buruzko lege aurreproiektuari lotuta egin beharreko ekintzak proposatzea eta, hala badagokio, onartzea.

2021eko azaroaren 12an, Ezohiko Batzar Nagusi bat egin zen, eta bertan, elkartearen izen aldaketa onartu zen; hala, hemendik aurrera, Conferencia Estatal de Defensorías Universitarias deituko da, Conferencia Estatal de Defensores Universitarios izena ordezkatzuz.

2.5. CEDUren defendatzaileekiko lankidetzaren foroetan parte hartuta

Unibertsitateko defendatzaileen arteko etengabeko lankidetzaren esparruan, nahiko arrunta izaten da gaiak posta elektronikoaren bidez planteatzea, hainbat gairi buruzko informazioa eskatzeko. 2021. urtean, gure bulegoak parte hartu eta ekarpenak egin ditu, CEDUren defendatzaileek kontsultatutako gaien inguruan. Era berean, aztertutako gaiei buruzko informazioa eskatuz iritsi zaizkigun inkesta guztiei erantzun diegu.

2.6. UPV/EHUren Gobernu Kontseiluetan parte hartzea

Aldezlea Gobernu Kontseiluak egindako bileretara joan da, gonbidatu gisa. Gobernu Kontseiluaren bilera horietan, gure unibertsitatearen eztabaidak, proposamenak eta akordioak hobeto ezagutzeko aukera izan dugu, eta planteatutako arazoaren nondik norakoak ezagutu eta ulertu ahal izan ditugu; hori guztia oso baliagarria izan zaigu gure zereginak betetzeko.

3. Urteko txosten ekonomikoa

2021eko aurrekontua 20.000 eurokoa izan zen. Hamargarren taulan, gastuen laburpen bat eta urteko ekitaldi ekonomikoa ixteko datari –abenduak 31– dagozkion kontuen egoera ikus daitezke.

10. taula. 2021eko laburpen ekonomikoa

Hasierako aurrekontua	20.000,00 €
Gastuak	
Bulegoko materiala, fotokopiak...	1.013,30 €
CEDUko bazkide kuotak	225,00 €
Liburuak	66,59 €
Bidaiak eta dietak	13.061,91 €
Beste gastu batzuk	56,66 €
Gastuak guztira	14.423,46 €
Saldoa	5.576,54 €

4. Ondorioak eta gomendioak

2021. urtean aurkezturiko kontsultak eta kexak oinarri hartuta, jarraian hainbat gogoeta partekatu nahi ditugu unibertsitateko kideekin, bulegora iritsi diren zenbait gairen harira, baita gure ustez arreta berezia merezi duten beste batzuen harira ere, gizarteari ematen diogun zerbitzua hobetze aldera.

Ohartarazi behar dugu ere jarraian aztertuko ditugun gaiak ez direla erabakigarriak estatistikaren ikuspuntutik, eta ezin direla ulertu UPV/EHUko jardueraren adierazgarri modura ere. Ondorio zehatzak dira, eta gehienetan isolatuak. Edonola ere, uste dugu gai horiei buruz gogoeta egitea, nahiz eta esanguratsuak ez izan unibertsitatearen jarduera globalari dagokionez, ezta planteatzen dituzten kolektiboek dagokienez ere, mesedegarria izan daitekeela unibertsitatearen zerbitzua hobetzeko, horixe delako azken batean aldezearen egitekoa.

Aldezearen zeregina, organo eskudunak erabakia hartu ez duen kasuetan

Unibertsitate klaustroari helarazi nahi diodan lehen alderdia Aldezearen bulegoaren lana planteatzen zaigun sakoneko gaia konpontzeko eskumena duen organoaren lanarekin egituratzeko moduari dagokio, unibertsitate organoak oraindik erabakia eman ez duenean. Sarri askotan gure unibertsitateko kideei aldezearengana joateko ala ez joateko zalantza sortzen zaie, jaurkeztu nahi duten kexa dagokion unibertsitate unitatea izapidetzen ari denean.

Aldezearen Araudiaren 15.5 artikulua ezartzen du aldezeak ez dituela kexak eta erreklamazioak onartuko, besteak beste, kasu hauetan:

...e) Erreklamazioak ebazpen administratibo edo judizialaren zain edo diziplinazko espediente baten pean dauden gaiei buruzkoak direnean.

f) Ebazpen judizial bidez edo diziplinazko espediente bidez jada ebatzitako gaiak direnean.

g) Unibertsitate araudi edo protokoloetan ezarritako urrats eta errekurtsu guztiak agortu gabe daudenean. Aldezeak azken buruan soilik esku hartuko du, bide arautu guztiak amaituta inolako erantzunik izan ez denean, edo erantzuna desegokitzat hartzen denean eskubide edo interes legitimoak urratzeagatik. Aldezeak salbuespenetan esku har dezake soilik ezarritako prozedura agortu gabe duten gaietan.

Era berean, jarraian transkribatzen ditugun kasuetan, gure Araudiak kexa edo erreklamazioaren izapidetzea eteteko eskatzen digu:

b) Administrazio espedientea irekitzen denean edo pertsona interesdunak demanda edo errekurtsioa aurkezten duenean epaitegietan.

c) Erreklamazioak ontzat jotzen duenean keparen helburu den organo edo zerbitzuaren erantzuna, azken horrek hutsegitea konpontzen duenean, edo, hori ezinezkoa izanez gero, etorkizunean akats berbera ez egiteko konpromisoa hartzen duenean

Azken batean, Aldezlearen araudiaren arabera, aldezleak ez ditu aurkeztutako erreklamazioak aintzat hartu behar, harik eta organo eskudunak ebazpen bat ematen duen arte edo administrazio bidea agortzen den arte (administrazio errekurtsioaren ebazpena izango litzatekeena).

Unibertsitate unitate eskudunak adierazpena egin arte Aldezlearen jarduteko ahalmena mugatzea zentzuzkoa da, nire iritziz, unibertsitate organoen arteko harremanetan nagusi izan behar duten leialtasuna eta administrazio organo bakoitzaren eskumenen errespetua oinarri hartuta. Aldezleak ezin du organo eskuduna ordezkatu.

Dena dela, aldezleak keparen izapide arrunta ez onartzeak (edo izapidetze arrunta eten behar izatea) ez du esan nahi, nire iritziz, ezer egin ezin dezakeenik, oraindik ere administrazio bidean *sub iudice* egoeran dagoen kasuari dagokionez. Araudiak berak kasu horietan jarduteko aukera ematen du, "salbuespenez" bada ere.

Oinarri horren gainean, premiazko arrazoiak ematen direnean edo gaiak bereziki larriak direnean, Araudiak jarduteko ahalmena ematen digula ulertzen dugu. Zehazki, informazioa eska daiteke ebaluatzeko, batetik, dena delako kasuan aldezleak zer eskumen duen, eta, bestetik, administrazio espedientea zer egoeratan dagoen. Kontuan hartu behar dugu Aldezlearen erakundea ez dela unibertsitate jarduera ikuskatzen duen kanpoko erakunde bat; haatik, unibertsitate honen barruko erakunde bat da, eta haren zeregina da unibertsitateko kide guztien eskubideak eta askatasunak errespetatzen direla zaintzea, UPV/EHUko organo eta zerbitzuen jardueren aurrean. Haren egitekoa ezin da mugatu izapidetzea zuzena izan den ala ez aztertzeraz, non eta ez den mugatu nahi erakundearen beraren eragin onuragarria.

Aurrekoa albo batera utzita, ulertzen dugu aldezleak balizko bitartekaritza bat planteatu dezakeela irekitako kasu batean, organo eskudunak hura ebatzi aurretik. Aukera hori aurrera eramanez ahal izateko, dena delako administrazio prozeduraren parte hartzaile guztiek berariazko baimena eman beharko dute. Hala bada, espedientea edo errekurtsioa izapidetzen ari den unibertsitate organoak prozedura eten beharko du behin-behinean, bitartekaritza gauzatzen ari den bitartean.

Era berean, gure iritziz, aldezleak esku hartu ahal izango du, irekitako prozeduraren baten izapidean atzerapen bidegabea edo justifikatu gabea ematen ari

dela irizten badio edo hartutako neurriren bat egiten ez bada, eta, edonola ere, kexa bat planteatzen bada, babesik gabeko egoera batean.

Matrikulazioa ixtea plaza muga osatu gabe

Aldezlearengana jo dute hainbat pertsonak matrikulak ixteko eskubidearekin ados ez daudela adierazi dute, plaza mugatik gorako eskaera duten graduatan plaza hutsak geratzen direnean. Zehazki, graduako unibertsitate ikasketa ofizialetan onartua izateko prozedurei buruzko oinarrizko arautegia ezartzen duen ekainaren 6ko 412/2014 Errege Dekretuaren 7.2 artikulua alegatzen zuten. Artikuluak honako hau dio: *"Ninguna Universidad pública podrá dejar vacantes plazas previamente ofertadas, mientras existan solicitudes para ellas que cumplan los requisitos y hayan sido formalizadas dentro los plazos establecidos por cada Universidad"*. Kexak banaka planteatu zituzten pertsonak ulertzen zutenenez, Medikuntzako Graduan plaza bat hutsik geratzeak aipatutako artikuluan adierazitakoa urratzea esan nahi zuen.

Gai horri dagokionez, kontuan hartu behar dugu unibertsitate bakoitzari dagokiola honako hauek ezartzea: balorazio irizpideak, plazak esleitzeko lehentasun ordena ezartzeko aplikatu beharreko arauak, eta onarpen prozedurak. Urte bakoitzaren apirilaren 30a baino lehen, Unibertsitate Politikaren Konferentzia Nagusiak unibertsitate publiko bakoitzak bere ikastegi eta tituluatan hurrengo ikasturtean eskainiko dituen gehieneko plaza kopurua argitaratzen du (7.2 art.). 2021-2022 ikasturtean, UPV/EHUK 200 plaza eskaini ditu Medikuntzako Graduan (gaztelaniaz), eta 130 plaza, Medikuntzako Graduan (euskaraz).

Era berean, Unibertsitate Politikako Konferentzia Nagusiak izena emateko eta matrikulatzeko gutxieneko epeak zehazten ditu, eta unibertsitate guztiek errespetatu behar dituzte, plaza guztien eskaintzan hautagai izateko ikasleen eskubidea bermatzen dela zainduz. Epe barruan baldintzak betetzen dituzten eskaera formalizatuak dauden bitartean, unibertsitate publikoak ezingo ditu hutsik utzi alde zurretik eskainitako plazak (7.2 art.). Helburu horrekin, unibertsitate publikoek graduako unibertsitate ikasketa ofizialen onarpenerako aplikatuko diren prozedurak argitaratu behar dituzte, ikasturte bat lehenago gutxienez (7.4 art.).

Horri begira, UPV/EHUK 2021-2022 ikasturtean Graduako Ikasketak Kudeatzeko Arautegia argitaratu zuen, Gradu Ikasketen eta Berrikuntzaren arloko errektoreordearen 2021eko martxoaren 22ko erabakiaren bidez. Arautegi horren 1. kapituluaz azaltzen dira, hain zuzen, onarpen prozedura, aurkezteko epeak, eta plazak eta matrikula esleitzeko sistema. Plazen esleipenari dagokionez, Arautegiak zehazten du aipatutako 412/2014 EDn adierazitako lehentasunen arabera egingo dela, interesdunek aipatutako lehentasunak errespetatuta eta kontuan hartuta baimendutako plaza muga areagotu egingo dela aurreko ikasturtearen urriaren 31 baino lehen baliogabetutako matrikulen kopuru baliokide batean (8. art.).

Onartutako pertsonen matrikula egin beharko dute hautatutako titulua ematen den unibertsitate ikastegian lehendik zehaztutako datetan (13. art.). Ikasturte honetan, lehen mailako ikasleentzako matrikulazio epea uztailearen 19tik irailaren 10era finkatu zen (26. art.), sei deialdi berezietan. Deialdia pertsona bakoitzari egin zitzaion berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioen arabera zegokion hurrenkeraren arabera. Beste unibertsitate publiko batean onartuak izateko zain daudela dokumentu bidez justifikatzen duten pertsona sartu berriek behin-behineko matrikula egin dezakete UPV/EHUn, baina ikasturtea hasi aurretik ikastegira joan beharko dute behin betiko matrikula egitera edo matrikula ukatzera, eta, edonola ere, 2021eko irailaren 15a baino lehen, matrikula behin betikoa ez bada, unibertsitateak ofizioz baliogabetuko du eta pertsona horrek plaza erreserbarako eskubidea galduko du (32. art.). Une horretan eskainitako plaza guztiak beteta geratuko ez balira, ikastegiak eskainiko lituzke itxarote zerrenda osatzen duten pertsonen ordena zorrotz beteta.

Alabaina, behin betiko egiten ez diren matrikula guztietatik ez da plaza huts bat sortzen; izan ere, ikastegiak konbertsio tasaren estimazio batekin egiten du lan, behin betiko bihurtutako behin-behineko matrikulen historikoan oinarri hartuta, eta, hori kontuan hartuta, pertsona gehiago onartzen ditu deitutako plazak baino. Soil-soilik behin betiko matrikulazioa ikastegiak egindako estimazioaz bestelakoa denean gertatuko da matrikula gehiegi egin direla edo plaza hutsak geratu direla, eta azken kasu horretan, plazak itxarote zerrendan dauden pertsonen deituta beteko ditu, dagokion ordenan.

Ikasturte honetan, UPV/EHUK 232 matrikulekin itxi zuen Medikuntzako Gradua (gaztelania) eta 132 matrikulekin Medikuntzako Gradua (euskara). Beraz, 412/2014 EDren arabera ezarritako onarpen eta matrikula prozedura amaitu ondoren, UPV/EHUK ez du eskainitako plaza bakar bat ere hutsik utzi; aitzitik, neurriak hartu behar izan ditu lehendik eskainitako plaza guztiak betetzeko, esate baterako, baimendutako plaza muga areagotu du, aurreko ikasturtearen urriaren 31 baino lehen baliogabetutako matrikula kopuru baliokide batean.

Dena dela, matrikulazioa itxi ondoren eta ikasturte osoan, matrikulak baliogabetu daitezke, dagozkion plazak hutsik utzita. Ikasturte hasieraren inguruko datetan ematen direnean, ikastegiek bete egiten dituzte, onarpen zerrendetan itxaroten dauden pertsonen eskainita. Planteatzen den auzia da prozedura hori ezin dela irekita eduki etengabe, kalitatezko irakaskuntza jasotzeko ikaslearen eskubidean eragina izan dezakelako.

UPV/EHUko aldezearen iritziz, 412/2014 Errege Dekretuaren 7.2 artikulua jasotako agindua ezin da interpretatu ikasturte osoan zehar emandako baja guztiak betetzeko unibertsitateei egiten zaien eskakizun gisa, bajak noiz ematen diren albo batera utzita. Zentzuzkoena da pentsatzea behin ikasturtea aurreratuta dagoela ikasle berriak ez direla onartzen, unibertsitateak aukera berdintasuna bermatu behar baitie matrikulatutako pertsona guztiei beren eskubide akademikoetan, eta titulu

matrikulatutako ikasle guztiek kalitatezko prestakuntza akademikoa jasotzeko eskubidea dute, aukeratutako ikasketei dagozkion gaitasunak eskuratu ditzaten, eta prestakuntza horrek barne hartuko ditu ezagutzak, gaitasunak, jarrerak eta balioak. Horri dagokionez, ikasturtea aurreratuta egonda sartzen diren ikasleek ez lituzkete edukiko aukera berdinak.

Lehen adierazi dugunez, Medikuntza Gradua (gaztelaniaz) 36 matrikula gehiagorekin itxi zen, eta Medikuntzako Gradua (euskaraz), 132 matrikulekin itxi zen. Azken horretan, itxi ondoren hiru matrikula baliogabetu ziren, baina azkenekoa ikasturtea hasi eta hilabete batera eman zen, ebaluazio probak ere eginak zeudela; hori dela eta, Medikuntza eta Erizaintza Fakultateak ikasle berriak ez onartzea erabaki zuen.

Titulu batean ikasturtean zehar izandako baliogabetzeen eraginez behin betiko matrikulen kopurua eskainitako plaza kopuruaren azpitik geratzen denean, plaza horiek ez dira bete gabe geratzen, hurrengo ikasturtean eskaintzen direlako, 412/2014 EDren 29. artikulua arabera, unibertsitate ikasketak hasita dituzten ikasleek bete ditzaten. UPV/EHUko Graduako Ikasketak Kudeatzeko Arautegiaren 7. artikulua ezartzen duenez, ikastegi bakoitzaren zuzendaritzak ikasle horientzat soilik onartu ahal izango du dena delako tituluan lehen mailarako sarrera mugarekin bateraezina ez den lekualdatze kopurua.

Azaldutakoaren bertutez eta Medikuntzako Graduan (gaztelania) 36 pertsonako matrikula gehiegi edukita, aldezleak irizten dio UPV/EHUko Medikuntza eta Erizaintza Fakultateak zentzuzko jardura sistema bat ezarrita duela, tituluetan eskainitako plazak ahalik eta gehien betetzeko, plaza hutsak geratu gabe, eta onarpen prozesuak amaitzean onartutako pertsonen kopurua handiagoa dela eskainitako plazena baino, plazak hutsik geratzeko aukera saihesteko, nahiz eta horren eraginez, zenbait kasutan —aztergai dugun honetan adibidez— matrikula gehiegi hartu behar dituen bere gain. Horrek ez du eragozten, halere, ikasturteak aurrera egin ahala, batzuek ikasketak uztea; horrelakoetan, plaza horiek hurrengo ikasturtean eskainiko dira, dagoeneko ikasketak hasita dituzten ikasleek bete ditzaten (lekualdatzeak).

Bosturtekoen eskaerari buruzko sailaren txostenerako irizpideak

Aurreko ekitaldian hainbat kexa jaso ziren, bosturtekoak eskatzeko prozeduretan sailek egindako txosten negatiboen inguruan. Bosturtekoen edo irakaskuntzako merezimenduen osagarrien aitortza unibertsitateko irakasleen ordainsarien elementu bat da. Unibertsitateak urtero egiten ditu bosturtekoen deialdiak, bai karrerako funtzionario diren bai lan kontratua duten irakasleentzat, Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordearen erabakien bidez. Erabaki horien zuzenbideko oinarria arau hauetan jasotzen da:

Funtzionarioen kasuan, unibertsitateko irakasleen ordainsariei buruzko abuztuaren 28ko 1086/1989 Errege Dekretua (hainbat aldiz aldatu dena) aplikatzen da.

2. artikuluan, c) letran, irakaskuntzako merezimenduei lotutako ordainsari osagarria deskribatzen da honela:

“El profesorado universitario podrá someter la actividad docente realizada cada cinco años en régimen de dedicación a tiempo completo o período equivalente si ha prestado servicio en régimen de dedicación a tiempo parcial, a una evaluación ante la Universidad en la que preste sus servicios, la cual valorará los méritos que concurren en el mismo por el desarrollo de la actividad docente encomendada a su puesto de trabajo, de acuerdo con los criterios generales de evaluación que se establezcan por acuerdo del Consejo de Universidades”.

Lan kontratudun langileen kasuan, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle-ikertzaileen ordainsariei buruzko martxoaren 4ko 41/2008 Dekretuaren 7. artikulua honako hau ezartzen du:

“7. artikulua.- Irakaskuntza-merezimenduengatik osagarria.

1.- Behin betiko kontratatutako irakasleek eta ikertzaileek irakaskuntza-jarduerari buruzko ebaluazio-txosten bat eskatu ahal izango diote beren Saileko Batzordeari bost urtean behin, lanaldi osoko arduraldian jardun badute, edo horren baliokide den aldiari, lanaldi partzialeko arduraldian jardun badute. Aipatutako txostenean, eskatzailearen lanpostuari dagokion irakaskuntza-jardueraren merezimenduak balioetsiko dira, ezarritako ebaluazio-irizpide orokorren arabera.

2.- Ebaluazio-txostenak bi kalifikazio baino ez ditu izango: aldekoa eta kontrakoa. Txostena ikusita, errektoreak hartuko du eskakizunari buruzko azken erabakia”.

Arauk irakaslanaren merezimenduak ebaluatu behar dituen txosten bat aipatzen du, bai eta ebaluazio irizpide orokorrak ere. Arauk ez du argitzen, ordea, zer irizpide orokor diren; hots, irizpideak sailak berak zehaztu behar dituen edo modu orokorrago batez finkatu behar diren osagarri horiek berdin aplikatzeko irakasle guztiei.

Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordeak irakasle funtzionarioentzat eta lan kontratudun irakasleentzat urtero argitaratzen dituen erabakietan, bosturtekoa lortzeko baldintzak aipatzen dira, sailaren txostena barne hartuta, zeinak aldekoa izan behar baitu. Horri dagokionez, bi deialdietan honako hau zehazten da:

Eskatzaileak Saileko Kontseiluaren txostena aurkeztu beharko du: Aipatutako txostena saileko zuzendariak igorriko du, eta, hura ez badago, saileko idazkariak. Interesduna Saileko zuzendaria balitz, idazkariak sinatuko luke, eta alderantziz.

Jarraian esaten da txostenak, negatiboa izanez gero, arrazoitua izan beharko duela. Edonola ere, Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordearen erabakietan ez da ezer esaten Sailek txostenak idazteko orduan aintzat hartu behar dituzten irizpideei

buruz. Ez dakigu zer baldintza bete behar diren txostenak positiboak edo negatiboak izan daitezen. Hasiera batean, beraz, sail bakoitzak finkatu beharko ditu irizpideak.

Kontua da UPV/EHUko sail batzuek irizpide batzuk erabiltzen dituztela eta horiek betetzen badira eskaeren txostenak positiboak direla, adibidez, irakasleek ikasleen inkestak bete izana, horien ehuneko bat, kontrako txostenak jaso ez izana, Docentiaz programak egin izana, etab. Beste sail batzuek, ordea, ez dute irizpiderik ezartzen, eta txostenak ia modu automatikoa igortzen dituzte, baldin eta irakaslearen irakaslanari buruzko txosten negatiborik igorri ez bada edo ikasleek hari buruzko kexarik jarri ez badute.

Egoera horrek nolabaiteko segurtasunik eza eragiten du, eta konparaziozko bidegabekeriak sortzen ditu; izan ere, sailaren aldeko txostena lortzeko irakasle batzuei eskatzen zaizkien baldintza batzuk ez zaizkie beste batzuei eskatzen, beste sail bati atxikita daudelako.

Gauzak horrela, aldezleak gomendatzen du gogoeta bat abiaraztea non agintari akademikoek, sailtako zuzendariak, sindikatuek eta ikasleen ordezkariak parte hartuko duten. Gogoeta horretan, sailek araudi aplikagarrian aipatutako txostena idazteko orduan eskatu eta aplikatu behar dituzten irizpideak, orokorrak edo maximoak, aztertu beharko dira.

Ikerketari lotutako ordainsari osagarriak

Bulegora iritsi zaigu ere ikertzeari lotutako ordainsari osagarrien gaia, "seiurteko" gisa ezagutzen direnak. Horri dagokionez, bi alderdi aipatu nahi nituzke: lehenengoa, laneko lotura mugagabea izanda eta seiurtekoak aitortuta edukita, funtzionario lanpostu batera sartzen diren irakasleen egoerari buruzkoa da. Bigarrenak aldi baterako irakasle-ikertzaileen egoerari eta seiurtekoak eskuratzeko mugei egiten die erreferentzia.

a) Lehenengo gaia hainbat irakasleek planteatu zuten. Hala, lan kontratu mugagabeko irakasle gisa egon ondoren (ikerketa seiurtekoak aitortuta edukita), irakasle funtzionario plaza bat eskuratu zuten, zegokion oposizioa gainditu ondoren. Horrelako kasuetan, ikerketa seiurtekoak kobratzeari uzten zaio, irakaslea funtzio publikora sartzen den unean. Kasu horietan, interesdunek seiurtekoen hurrengo deialdira aurkeztu behar dute, eta horiek boliozkotzeko eskatu. Prozesu hori urte amaieran edo hasieran izaten da, eta automatikoa den baliozkotzearen eragin ekonomikoa erabakiaren urtearen urtarrilaren 1etik aurrera hasten da. Azken batean, lan kontratupeko plaza mugagabe batetik datozen funtzionario berriek seiurtekoen eskubide ekonomikoak galtzen dituzte, funtzio publikora sartzen direnetik hurrengo urteko urtarrilaren 1era arte (betiere baliozkotzea eskatzen badute funtzio publikora sartu ondorengo lehenengo deialdian).

Gai horri dagokionez, hainbat epai kontraesankor eman dira, eta ziurgabetasun juridiko nabarmena eragin dute.

Gai horren inguruko kudeaketa lanak idazkari nagusiak egin zituen, eta hemendik eskertu nahi ditugu haren ahalegina, haren kudeaketak Ministerioaren mendeko Unibertsitateen idazkaritza nagusiarekin, eta haren meritua azkenean konponbide on bat lortzeko. Gaia Unibertsitateen idazkari nagusiari planteatu ondoren, hark konpromiso bat hartu zuen, seiurtekoen hurrengo deialdian, baliozkotze eskaerak ematen ziren kasuetan, baliozkotzearen eraginak eskatzaileak funtzionarioa den une berean has daitezzen. Azkenean, horrela argitaratu da 2022ko deialdiaren eranskinaren 3.5 puntuak, non honako hau ezartzen baita: "El plazo de presentación de estas solicitudes de convalidación será el mismo que el de la convocatoria general y tendrá efectos económicos desde que la persona solicitante haya adquirido la condición de funcionaria".

b) Seiurtekoei lotutako bigarren gaia aldi baterako irakasle-ikertzaile askok (plantillako lanpostuen plaza hutsa ez dutenak) horiek eskuratzeko ezintasunari lotuta dago.

Seiurtekoen 2020ko deialdiaren aurretik, irakasle ez-iraunkorren ikerketa merezimenduak ebaluatzeko aukera ez zegoen aurreikusita. Egoera 2020an aldatu zen, ANECAk ebaluazio hori egiteko aukera eman baitzuen, unibertsitateak edo erkidegoko ebaluazio agentziak ANECArekin adenda bat sinatzen bazuten.

Seiurtekoen deialdia aldi baterako langile guztiengana iristeari dagokionez, egungo gobernu taldearen borondate ona eta jarrera ulerkorra egiaztatzen dugu, eta, horren harira, aldezleak, jarrera hori eskertzeaz gainera, ahaleginak areagotzeko eskaera egiten dio, Eusko Jaurlaritzari eska diezaion Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen irakasle eta ikertzaileen ordainsariei buruzko martxoaren 4ko 41/2008 Dekretuaren 8.1 artikulua alda dezan; horrela, langile ez-iraunkorrek ikerketa merezimenduengatik ordainsari osagarriak eskuratu ahal izango dituzte, jurisprudentziak agerian utzi duen konparaziozko bidegabekeria dakarren egoera konponduz. Kontuan hartu behar dugu irakasle ez-iraunkorrek daudela egoerarik zaurgarrien eta prekarioenean, eta, beraz, seiurtekoak eskuratzea lagungarria izango litzateke, zalantzarik gabe, haien egonkortasuna lortzeko bidean.

Kalifikazioen argitalpena

Ikasleen kalifikazioak argitaratzearen gaia ere nabarmendu nahi dugu; izan ere, ikasleen kalifikazioak ez dira argitaratzen, ebaluazio etengabe egindako probetan eta baloratutako beste elementu batzuetan. Irakasleok ebaluazio sistemetan izan diren eta ikaslearen azken kalifikazioa eratzten duten emaitzak argitaratzeko betebeharra dugu (praktiken kalifikazioak, aurrerapen probenak, etab.). UPV/EHUko Gradu Titulu Ofizialetan Ikasleen Ebaluaziorako Arautegiak ezarritakoaren arabera: "Azken ebaluaziokoak ez diren proben kasuan, kalifikazioa argitaratzeko 21

egun naturaleko epea egongo da, proba egin edo aurkeztu den egunetik kontatzen hasita" (17. artikulua). Era berean, eta ebaluazio proba orotan bezala, kalifikazio horiek berrikusi ahal izango dira, gutxienez hiru eta gehienez sei egun naturalekoa izango den epe batean, kalifikazioak argitaratzen diren egunetik zenbatzen hasita.

Horrez gain, gogoratu behar dugu proba horiek eta haiek irakasgaiaren kalifikazioan izango duten haztapena dagokion irakaskuntza gidan zehaztu beharko direla eta bertan adierazi beharko dela ere proba horiek nahitaezkoak ote diren; hau da, proba egin behar den edo gutxieneko nota bat lortu behar den irakasgaia gainditu ahal izateko. Gogoratu nahi dugu, berriro ere, irakasleek beharrezkoa den arreta eskaini behar dietela irakaskuntza gidei.

Presentzialtasunera itzultzea eta salbuespen egoerak

Joan den 2021. urtean, pandemiak eragindako egoerak unibertsitateko kide guztien jarduera baldintzatzen jarraitu du. Edonola ere, pandemia egoerari lotuta aldeziak egin behar izan dituen jarduerak eta ekimenak askoz ere gutxiago izan dira 2021 honetan, joan den urtean baino. Zehazki, 2021ean, 9 gorabehera eman dira, eta 2020an, berriz, 19 izan ziren. Horrek agerian uzten du 2020an hauteman genituen gorabeherak eredu aldaketaren premiazkotasunak eragin zituela, aurten ez baitira berriro gertatu.

Azken urte honetan berriro eman da, ordea, eskolak online sistemaren bidez ematearen gaia. Horri dagokionez, *Erabateko presentzialtasunera itzultzea* (2021eko urria) dokumentuak egoera berrian, oro har, erabateko presentzialtasunera itzultzea eta irakaskuntza eta ebaluazioa horren arabera egitea aurreikusten bazuen ere, COVID-19ari lotutako inguruabarrak direla eta (gaixotasunez kutsatuta egotea, ospitaleratzea, medikuak egiaztatu eta Ikasleen arloko errektoreordeak onartutako zaurgarritasun egoera berezia...) ikasketak aldi batez UPV/EHU-n modu presentzian egin ezin dituzten ikasleen kasuan, indarrean jarraituko dute ordura arte izandako egokitzapen akademikoak eta pedagogikoak, egoera horietan ere ikasten jarraitu ahal izateko. Gogoratzen zen, halaber, Webex bideokonferentzia tresnak unibertsitateko kideen esku jarraituko zuela ikasturte osoan; beraz, erabil daiteke egoera horien eskolen jarraipen telematikoa egiteko.

Araudiak ez du aitortzen online "irakaskuntza" eta "ebaluaziorako" eskubide orokor bat. Irakaskuntzari dagokionez, arauak zera aipatzen du, "irakasleen laguntza" eta "egokitzapen akademikoak eta pedagogikoak" jasotzeko eskubidea, baita tutoretzak izateko eta ebaluazio sistemak erabiltzeko eskubidea ere. Ez da eratzten online irakaskuntza jasotzeko eskubide subjektibo bat.

UPV/EHU-n ikasketak modu presentzian jarraitu ezin dituzten pertsonen dagokienez, aldeziak gomendatzen du araua interpretatu behar dela hezkuntzarako eskubidea ahal bezainbeste bermatzeko moduan. Hala, irakasgai presentzialen kasuan, eta joan den urteko gomendioa berretsita, ikasgelan audio eta bideo

emanaldiak emateko ekipo informatiko bat edukiz gero, sistema aktibatzea gomendatzen da, eskoletara joan ezin diren ikasleek klase presentzialetara sartzeko aukera izan dezaten.

Gradu/Master Amaierako Lanak

Ikasketen amaierako lanei dagokienez, hainbat gai planteatu zaizkio aldeleari, eta horien berri eman nahiko genuke, modu laburrean bada ere. Alde batetik, zenbait irakasle kezkatuta etorri dira guregana, lan gehiegi esleitu zaizkielako; kasuren batean, hamar GRAL izatera arte. Egia esateko, UPV/EHUren araudiak ez du finkatzen Gradu edo Master Amaierako Lanen gehieneko kopururik irakasle bakoitzeko. Arazoa ematen bat batez ere irakaskuntza hainbat fakultatetan ematen eta, beraz, nahitaezko kreditu karga handia duten sailetan; hau da, sail eraginkorrenetan. Horrelakoetan, ikastegietako gobernu taldeek zehaztutako irizpideak oinarri hartuta, GRAL kopuru bat esleitzen da sail bakoitzeko, eta ikastegiari atxikitako irakasleen artean banatzen dira. Datu zehatzak ez baditugu ere, badirudi 2020an eta 2021ean ohi baino uko egite gehiago eman direla, beharbada bibliotekara sartzeko eta sarean ez diren baliabide bibliografikoak eskuratzeko zailtasunen eraginez. Hori dela eta, ikasle berrien GRALak zuzentzeko esleipenei aurreko ikasturteetatik egin gabe geratutakoak batu behar zaizkie.

Errealitate horri dagokionez, aldelearen iritziz, gogoeta bat egin beharko litzateke, irakasle bakoitzeko gehieneko muga bat finkatzeko aukerari buruz, ikasketen amaierako zuzendaritzak eskatzen duen ahalegina eta ordu kopurua aintzat hartuta; hartara, lan gehiegi esleitzeak ez du ondorio kaltegarriak izango berrikuspen eta zuzendaritza lanaren kalitatean.

Bestalde, zuzendariak lanen proiektuei egindako jarraipen eskasari buruzko gorabeherak ere planteatu zaizkigu. Horri dagokionez, Gradu Amaierako Lanak egiteari eta defendatzeari buruzko arautegiak zuzendariei ezarritako betebeharrak ekarri behar dugu gogora, haien ardura baita "ikasleari lanaren ezaugarriak azaltzea, ikasleari lana egiteko orientazioa ematea eta zehaztutako helburuak betetzen direla zaintzea, bai eta lanaren jarraipena egitea eta ikasleari lana defendatu aurretik emango zaion txostena idaztea ere". (4.1 artikulua). Azpimarratu behar dugu, halaber, gomendagarria dela jardunbide egokiak partekatzea eta jarraipenean gutxieneko eta betebeharrak batzuk ezartzea, ikasleen eta zuzendariaren artean. Modu berean, ildo objektiboak finkatu behar dira, ebaluazio errubrika modura, epaimahaiek egindako ebaluazioan.

Unibertsitateko Bizikidetzaren Legearen proiektua

Amaitzeko, arau garrantzitsu bat aipatu nahiko nuke. Epe laburrean sartuko da indarrean, eta aldaketa bat ekarriko du gure unibertsitatearen zenbait jardueran

modutan, bereziki diziplinen arloan. Unibertsitateko Bizikidetza Lege proiektuari buruz ari naiz.

Unibertsitateko Bizikidetza Legeak konstituzioaren aurreko arau anakroniko bat indargabetuko du, oso nekez egokitzen baita gaur egungo antolamendu juridikora eta ikasleen oinarrizko eskubideen bermeetara. Hezkuntza Nazionalaren mendeko Goi Ikasketen eta Ikasketa Teknikoen Zentro Ofizialen Diziplina Akademikoko Araudiaz ari gara, 1954ko irailaren 8ko Dekretu bidez onartu zena, Pazo de Meirás izeneko jauretxean.

Unibertsitateko irakasleen araubideari buruzko apirilaren 30eko 898/1985 Errege Dekretuak aipatutako Diziplina Akademikoko Araudi hura baliogabetu zuen, irakasleei zegokienez. Alabaina, arau haren xedea zela eta, ez zen gauza bera egin ikasleei lotutako xedapenetan. Gauzak horrela, irakasleak eta administrazio eta zerbitzuetako langileak, diziplina araubideari dagokionez, enplegatu publikoei aplikatzen dakiekeen legedian ezarritakoaren arabera arautzen diren bitartean, ikasleak konstituzio aurreko araudi horrek ezarritakoaren menpe daude.

Diziplina Akademikoko Arautegia, batik bat, unibertsitateetan ordena publikoa kontrolatzeko diseinatu zen, estatu faxista eta diktatorial baten ezaugarrien arabera. Hura indarrean egonda, gehiegi zigortzen duen sistema bat mantentzea da, zigortutako gertaerekiko neurri gabeak diren zigorrak biltzen dituen eta zigor prozedura bat mantentzen duena, zuzenbideko estatu sozial eta demokratiko baten diziplina araubide baten gutxienezko bermeekin zerikusirik ez duena. Hala, arau hauste larritzat jasotzen ditu erlijio eta moral katolikoaren edo estatuaren printzipio eta erakundeen aurkako ikasleen adierazpenak, eta zigor gisa aurreikusten du ikasleak kanporatzea, aldi baterako edo behin betiko, irakaskuntza zentro guztietatik eta unibertsitate barrutiaren zentro guztietatik. Gainera, ez dauka faltak preskribatzeari edo iraungitze epeei buruzko araubide bat; eta, falta astun edo ez hain astun gisa jasota egon gabe, ordena eta diziplina akademikoan nahasmena eragin dezakeen gertaera oro falta arin gisa ezartzen duenez, oinarrizko legezketasun eta tipikotasun printzipioak urratzen ditu, diskrezionalitate tarte handia utzita diziplina ahalmena gauzatzen duenari. Haren konstituzionaltasunari buruzko zalantzak agerian geratu ziren jada Auzitegi Gorenaren 1988ko irailaren 9ko eta 1989ko apirilaren 11ko epaietan. Hori dela eta, haren aplikazioak ahalegin etengabea eskatu du, haren edukia interpretazioaren bidetik egokitzeko.

Araudi esparru berriak beste ikuspegi batetik heltzen dio diziplina arloari. Hala, proposatzen da unibertsitateek gatazkak konpontzeko bitarteko alternatiboak — adibidez bitartekaritza — bultzatzeko aukera izatea. Bitarteko horiek eraginkorragoak izan daitezke sektore bereko edo desberdineko unibertsitateko kideen arteko zenbait portaerari eta gatazkari aurre egiteko. Era berean, Legeak zigorrak ordezkatzeko bitarteko batzuk ezartzen ditu, eta horien bidez hezkuntzari ematen zaion lehenasunezko balioa indartu nahi da, unibertsitate bizikidetzaren esparruan.

Legeak ez du guztia arautu nahi. Aitzitik, unibertsitate bakoitzak zehaztu eta garatu beharko ditu Legearen printzipioak, unibertsitateko kide guztientzat nahitaezkoak diren Bizikidetza Arauen bidez, eta arau horien gutxieneko edukia ere zehazten da. Bizikidetza Arau horiek elkarren arteko ulermena, bizikidetza baketsua eta unibertsitatean oinarritzko eskubideen eta askatasun publikoen erabateko errespetua bultzatzeko tresna gisa eratzen dira. Nabarmentzekoa da Bizikidetza Arau horiek unibertsitateko kideen partaidetza eta audientzia irizpideen arabera egin behar direla. Aurreikusten da, halaber, unibertsitateetan Bizikidetza Batzorde bat eratzea, sektore guztien ordezkaritza parekidea izango duena.

Legeak honela sailkatzen ditu faltak eta zigorrak: oso astunak, astunak eta arinak. Era berean, arauak aukera bat aurreikusten du organo zigortzaileak ordezkotzko neurri hezitzaile edo berreskuratzaile bat proposatu dezan, falta astun bat egiteagatik aplikagarriak diren zigorrak direnean, egindako faltak ikasketen ebaluazio prozesuari lotutako arloetan jarduera iruzurtiak eragin dituztenean izan ezik.

Diziplina araubidea eteteko aukera aurreikusten da, aldeek bitartekaritza prozesu bat hasteko borondatea adierazten dutenean eta Bizikidetza Batzordeak bide hori egokia dela erabaki duenean. Bitartekaritza prozesuak arrakasta izan ez badu, diziplina araubidea martxan jarriko litzateke berriro.

Aldezlearen erakundearen ikuspegitik positiboena da, beharbada, bitartekaritza indartzea dela, gatazkak konpontzeko tresna gisa, eta bizikidetza bermearen gaineko ikuspegi unibertsala jasotzen dela, unibertsitatearen esparruan, pertsonen oinarritzko eskubideak funtsezko balio gisa barneratuta. Unibertsitate bizikidetzaren bermea ezin da landu soilik zigor araubidearen ikuspegitik. Bitartekaritzak, gatazken prebentzioak eta horien erantzunean aurre hartzeak unibertsitateko bizikidetzaren berme izan behar dute.

Amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkiegu berriz ere Aldezlearen zerbitzuan konfiantza izan duten pertsona guztiei, baita gure lana eta independentzia errespetatu dituzten unibertsitate zerbitzu eta agintari akademikoei ere

I. ERANSKINA: 2021eko aztergaien zerrenda

Gakoak

Kolektiboa	Aztergai mota
IK: Ikasleak	KE: Kexa
IRI: Irakasle-ikertzaileak	KO: Kontsulta
AZP: Administrazio eta Zerbitzuetako Langileak	B: Bitartekaritza
Beste batzuk: UPV/EHUtik kanpoko pertsonak	

Zk.	Kolektiboa	Aztergai mota	Gaia
1237	IK	KE	Desadostasuna jarduteko protokoloarekin, kirol ekintzetan izandako istripu kasuetan.
1238	IRI	KO	Lehentasun irizpideak, sail baten irakasle-ikertzaileen irakaslana esleitzean.
1239	IRI	KE	Desadostasuna bulegoak esleitzeko erabilitako prozedurarekin.
1240	IK	KE	Eskatutako egokitze baliabideen eskuragarritasuna (zeinu hizkuntzako interpretea).
1241	AZP	KE	COVID-19aren aurka txertatzeko eskaera, jendaurreko zerbitzua ematen duen arrisku langiletzat hartzegatik.
1242	AZP	KO	Telelaneko modalitatean lan egiteko aukera ukatzeko emandako arrazoiak nahikoak ez izatea.
1243	IK	KO	Hainbat arazo doktorego programaren tutorearekin.
1244	Beste batzuk	KE	Kanpoko praktikei buruzko eskaera ukatzea.
1245	IRI	KO	Aldi baterako irakasle-ikertzaileen kontratazio bati emandako puntuazioa araudira egokitzea.
1246	AZP	KO	Familia kontziliazioko lehentasun irizpideen interpretazioa, lan modalitate ez-presentzian zerbitzua emateari buruzko akordioan.
1247	Beste batzuk	KO	Irakasle-ikertzaile plaza batera sartzeko hautapen proben antolakuntza.
1248	IK	KO	Irakasgai bat ebaluatzeko prozedura

1249	IRI	KO	Aldi baterako irakasle-ikertzaileen eskubidea, ikerketa merezimenduen ebaluazio deialdian parte hartzeko.
1250	IK	KO	Ikasgelak egokitzeko eskaera, konfinamendu kasuan eskolak urrunetik jarraitzeko.
1251	IK	KO	Azterketa baten nota ofizioz aldatzea, kalifikazioak berrikusteko epearen barruan.
1252	IK	KO	Kexa, Graduko irakasgai bat eskainitako hizkuntzan ez emateagatik.
1253	IK	KO	Irakasle baten portaera ebaluazio proba batean, ustez COVID-19ko sintomak zituen ikasle baten aurrean.
1254	IRI	KO	Desadostasuna zerbitzu medikoak pertsona zaugarri baten egoerari buruz emandako irizpenarekin.
1255	IK	KE	Desadostasuna doktore aurreko ikertzaileak kontratatzeko deialdiaren oinarriekin, konparaziozko bidegabekeria ematen dela kontsideratuta.
1256	IK	KO	Irakaskuntza online jasotzeko eskaera, ikasleen familia kontziliazioa errazteko.
1257	IK	KE	Irakasle batek beste bati errespetua faltatzea eta deskalifikatzea, jendaurrean.
1258	IRI	KO	Kexa, sailak bosturtekoen eskaera baten inguruan egindako txosten negatiboa dela eta.
1259	Beste batzuk	KO	Irakasle-ikertzaileak ordezkatzeko poltsen araudiaren aplikazioari lotutako gaiak.
1260	IRI	KE	Irakasle-ikertzaile baten curriculumaren argitalpen korporatiboa, interesdunak alde aurretik baimendu gabe.
1261	Beste batzuk	KO	Desgaitasuna duten pertsonen erreserbatutako irakasle-ikertzaileen plazetarako sarrera.
1262	IRI	KE	Zuzendaritza taldearen (UPV/EHUko organoak) aurkako idatzi iraingarrien dibulgazioa
1263	IK	KO	Euskarako C1 titulua eskuratzeko baldintzak betetzea, titulu batean graduatzean.
1264	IRI	B	Gatazka, egilekideen ordena ezartzean lan zientifiko baten argitalpenean.
1265	IK	KE	Gradu baten irakasgaitan matrikulatzeko aurrebaldintza berriak ezartzea.

1266	AZP	KO	AZPko pertsona baten portaera desegokia zerbitzuko lankideekin eta erabiltzaileekin.
1267	AZP	KO	Plaza baten titulartasuna galtzea, zerbitzu betekizun bat onartuz gero.
1268	IRI	KE	Desadostasuna sail baten ordezkapen poltsa baten baremazioarekin.
1269	IK	KO	Arazoak GRALeko zuzendaritzarekin
1270	Beste batzuk	KO	Erreklamazioa irakasle baten portaera desegokiagatik.
1271	IK	KO	Lehentasun posizioa galtzea ikasleen mugikortasun deialdi batean, COVID-19aren eraginez aurreko deialdi bati uko egiteagatik.
1272	IRI	KO	Ekitaldi orokorren argitalpena UPV/EHU.
1273	IRI	B	Saileko lankide batek irakasle bat iraintzea.
1274	Beste batzuk	KO	Odontologiako Graduaren homologaziorako azterketa deialdi bat bertan behera uztea COVID-19agatik.
1275	IRI	KO	Hainbat arazo saileko irakasleekin.
1276	IRI	B	Desadostasuna osasun laguntza emateko esleitutako norakoarekin, haren irakaslanari eta ikerketari eragiten baitio.
1277	IK	KO	Ustezko portaera arrazista dela eta, irakasle baten aurkako kexa aurkezteko prozedura.
1278	IRI	KO	Jantokiaren itxiera pandemiagatik.
1279	IRI	KO	Irakaskuntzan laguntzeko AZPko plaza bat eskatzea.
1280	IK	KO	Desadostasuna Epaimahai Berezi baten erabakiarekin.
1281	IK	KO	Desadostasuna Epaimahai Berezi baten erabakiarekin.
1282	IRI	KE	Desadostasuna saileko irakasleen irakaskuntza ordutegien banaketarekin.
1283	IK	KE	Tesi defentsaren grabazioaren kopia eskuratzeko eskubidea.
1284	IRI	KO	Ustezko etsaitasuna plazaren epaimahaiko kideekin.
1285	IRI	KO	Gehigarritzko ordainsari osagarrien erreklamazioari ez erantzutea.

1286	Beste batzuk	KO	Irakasle-ikertzaileak ordezkatzeko poltsa baten funtzionamenduan izandako ustezko irregulartasunen aurrean jardutea.
1287	IK	KO	Irizpidea aldatzea, mugikortasunagatiko kredituen aitortza lortzeko.
1288	IRI	KO	Gehigarrizko ordainsari osagarrien ordainketa erreklamatzeari.
1289	IK	KO	Desadostasuna titulu hiru eledun baten izenarekin.
1290	AZP	KO	Pandemian lanaldi mistoaz gozatzeko eskubidea.
1291	Beste batzuk	KO	Sarbiderako proba fisikoak beste data batean egiteko aukera, egiaztatutako lesio batek zegokion datan egiteko aukera eragotzi ondoren.
1292	IRI	KO	Irakasle-ikertzaileen artean irakaslan banatzeko irizpideen interpretazioa.
1293	IRI	KO	Seiurtekoak aitortzeko irizpidea berrikusteko eta zuzentzeko eskaera.
1294	Beste batzuk	KO	Titulu batean lortutako onarpen nota araudira egokitzea.
1295	IK	KO	Irakasle batek irakasgai bat ematea eta ebaluatzea.
1296	IRI	KE	Unibertsitateko kide baten portaera, saileko lankideen datu babestuak zabaltzen dituelako.
1297	Beste batzuk	KO	Irakasle-ikertzaileen plaza bat betetzeko prozedura batean jarritako gorako errekurtsio bati ez erantzutea.
1298	Beste batzuk	KE	UPV/EHUra sartzeko ezintasuna, beste herrialde batean lortu eta UHUNek baliokidetu ez dituen kalifikazioekin.
1299	IK	KO	Test erako azterketa bidez ebaluatua izateko eskubidea, osasun arazoei lotutako medikuen gomendioa aintzat hartuta.
1300	IRI	KO	Bulego batetik kaleratzea, alde aurretik bertan zegoenari abisatu gabe.
1301	IK	KO	Irakasgai bat ebaluatzeko irizpideak egokitzea.
1302	IK	KO	Azterketa baten data ofiziala aldatzea osasun arazoengatik.
1303	IK	KO	Praktiketan astebete gehiago egin behar izatea, medikuaren justifikazioarekin alde egiteagatik.

1304	Beste batzuk	KO	UPV/EHUren ikertalde bateko kide izateko aukera, laneko loturarik izan gabe.
1305	IRI	KO	Txanda kontratu bat izateko aukera.
1306	IRI	KO	Doktorego tesiaren zuzendaria izendatzeko premia.
1307	IRI	KO	Mutua bidez ospitale arreta jasotzeko izapideak bizkortzeko eskaera.
1308	IRI	KO	Azterketaren kopia eskuratzeko eskubidea.
1309	IRI	KO	Saileko lankide batekin izandako gatazkan jardutea.
1310	IK	KO	Doktorego tesiaren zuzendaritzaren berezko betebeharrak betetzea.
1311	Beste batzuk	KO	Tesiaren bi zuzendarikide baino gehiago izendatzeko doktoregaiaren eskubidea.
1312	IRI	KO	Haserrea bere zerbitzuko langile baten jarduerarekin.
1313	IRI	KE	Desadostasuna irakaslanaren banaketarekin sail baten arloan.
1314	Beste batzuk	KO	Desadostasuna unibertsitatera sartzeko probetan zenbait azterketaren ordutegi aldaketak argitaratzeko moduarekin.
1315	IRI	KO	Ikerketa jarduera ebaluatzeko prozeduran aurkeztutako gorako errekursoari buruzko informazioa.
1316	Beste batzuk	KO	Master Ofizial batean onartuen eta baztertuen zerrenden aurkako erreklamazio epeei buruzko informazio eskaera.
1317	IK	KO	Matrikula aparteko arrazoiengatik baliogabetzeko eta prezio publikoak itzultzeko eskubidea.
1318	Beste batzuk	KE	Graduko ikasketak egin zituen ikastegiari atxikitako hainbat irakasle-ikertzaileen aurkako kexa.
1319	IRI	KO	Jardunbide egokien kodeak ekitaldien antolakuntzan.
1320	IRI	KO	Arazoak laborategiko tresneriaren erabilerarekin.
1321	Beste batzuk	KO	Ahozko probak grabatzeko eskubidea, irakasle-ikertzaile plaza baten deialdian.
1322	IRI	KO	Ikasle batek irakasleari egindako irain eta mehatxuen aurrean jarduteko modua.

1323	AZP	KO	Lanpostuaren balorazioari buruz egindako eskaerari ez erantzutea.
1324	IRI	KO	Titulu bat eskuratzeko aukera, desgaitasun baten ondorioz proba praktikoak gainditu gabe.
1325	IK	KE	GRALeko tutoretza egiteko ezintasuna, tutorearen baja medikoagatik.
1326	IK	KE	Kexa, pandemian gradu batean emandako irakaskuntza presentziala dela eta.
1327	AZP	KE	Ikasketa ofizialetan matrikulatzeko gizarte laguntza ukatzea, aldi baterako langilea izateagatik.
1328	IK	KO	Mugikortasuna ukatzea ikastegiak ezarritako baldintzak ez betetzeagatik.
1329	IK	KO	Kredituen aitortza ahalbidetzen duten curriculumez kanpoko praktikak egiteko aukera ez izatea dagoeneko kreditu guztiak matrikulatuta edukitzeagatik.
1330	AZP	KO	Pertsona bakarreko kargua onartzea Gobernu Kontseiluan.
1331	AZP	KO	Jardutea organo eskudunak erantzun ez duelako.
1332	Beste batzuk	KO	Arazoak plaza berresteko, Graduako titulu batean izena eman ondoren.
1333	IRI	KO	Aldi baterako ezintasunaren gehieneko iraupena agortu duten langileen egoera.
1334	IK	KE	Ohorezko matrikularen aipamena lekualdatzeko ezintasuna, Gradua aldatzean espedientea lekuz aldatzen denean.
1335	Beste batzuk	KE	Atzerapena beste unibertsitate batean kredituak aitortzeko eskatzeko beharrezkoa den dokumentazioa ematen.
1336	AZP	KO	Zerbitzu betekizunetan plaza bat betetzen ari den karrerako funtzionarioaren eskubideak.
1337	IK	KE	Plaza galtzea, hautatutako praktika zentroan matrikula zegokion orduan ez izapidetzeagatik.
1338	IK	KE	Irakasgai baten kalifikazioa berrikusteko eskaera baten ezeztapen arrazoitu gabea.
1339	IK	KE	Gradua aldatzean espedientea lekuz aldatzarekin batera, ohorezko matrikularen aipamena lekualdatzeko ezintasuna.

1340	IRI	KO	Irakaskuntza kredituen gainkarga, jakintza arlo batean.
1341	IRI	KO	Irakasle-ikertzaile iraunkor plaza baten eskaerari ez erantzutea.
1342	AZP	KO	Desadostasuna hierarkian gorago dagoen organoak emandako jarraibideekin.
1343	AZP	KO	Poltsen deialdiari buruzko informazio eskaerari ez erantzutea.
1344	IK	KO	Irakasgai batean lortutako ohorezko matrikula batengatik prezio publikoak murrizteko arazoak aplikazioarekin.
1345	IK	KO	2021/2022 ikasturterako eskolen presentzialtasun maila egokitzea.
1346	IK	KE	Graduko irakasgai batean hizkuntzagatik talde aldaketa egiteko aukera ukatzea.
1347	IRI	KO	Irakasgai bateko irakasleari begirunerik gabe bidalitako hainbat mezuren aurrean jardutea, ebaluazioarekin ados ez egoteagatik.
1348	IK	KE	Desadostasuna eskolen presentzialtasun partzialarekin 2021/2022 ikasturtean.
1349	IK	KE	Hezkuntza laguntzako pertsona bat baimentzea eskatutakoa baino denbora tarte laburragoan.
1350	IK	KE	Bizkortasun falta kredituak aitortzeko eta baliozkotzeko eskaeren ebazpenean.
1351	IK	KE	Irakaskuntza taldea aldatzea alde aurretik abisatu gabe eta eskatu gabe.
1352	IRI	KO	Sarbiderako proba fisikoak beste data batean egiteko aukera, baldin eta egiaztatutako lesio batengatik zegokion datan egin ezin baditu.
1353	Beste batzuk	KE	AZPko langileen lan poltsa batean langileak ez izatea eta horren ondorioz ikasle bati baimendutako laguntza langilea ez izatea.
1354	IRI	KO	Arazoak ikerketa proiektu baten kargura egindako gastuak kobratzean.
1355	IK	KE	Hezkuntza premia bereziak dituen pertsona bati baimendutako laguntza langilea hartzeko aukera ez izatea.

1356	IK	KO	MAL baten kalifikazioa erreklamatzeko prozedura, eta zuzendariaren aurka jarduteko kexen protokoloa.
1357	IRI	KO	Tarteak aitortzea, gehigarriko ordainsari osagarrien deialdian.
1358	IRI	KO	Tesi zuzendariaren aldaketa eskatzeko protokoloa.
1359	IK	KO	Azterketen data aldatzeko eskubidea, erditzeko datarekin bat etortzeko aukeraren aurrean.
1360	Beste batzuk	KO	Graduko ikasketak egiten jarraitzeko ezintasuna.
1361	Beste batzuk	KO	Espedientea lekuz aldatzeko ezintasuna, UPV/EHUn zorra bat izateagatik.
1362	Beste batzuk	KE	Desadostasuna matrikulatzeko epea amaitu ondoren gradu batean hutsik geratzen diren plazak betetzeko moduarekin.
1363	IK	KO	Gutxiegi gradu baten curriculum praktikan, begiraleak, ez joateak arrazoituta, egindako txosten negatiboaren eraginez.
1364	IRI	KO	Zalantzak doktore aurreko ikertzaileentzako sari baten deialdiaren oinarrien inguruan.
1365	IK	KO	Practicum baten nota berrikusteko prozedura.
1366	IRI	KO	Saileko irakasle batek jarritako errekurtsio baten gainean igorritako erabakia saileko kideen artean zabaltzea.
1367	AZP	KO	Ustezko tratu baztertzaila AZPko langileen lanaldi modalitatea hautatzeko unean.
1368	IRI	KO	Desadostasunak saileko kideekin.
1369	IRI	KO	UPV/EHUko irakasle-ikertzaile batzuk elkargo bateko kide izateko eskakizuna.
1370	Beste batzuk	KE	Gradu batean matrikulatzeko ezintasuna, dagokion epean euskarako B2 maila ez egiaztatzeagatik.
1371	IK	KE	Unibertsitate ikastegi batean ikasleentzako espazio baten irekiera ordutegia zabaltzeko eskaerari ezezko erantzuna ematea.
1372	IRI	KE	Desadostasuna istripu batetik eratorritako aseguruaren kalte ordainaren erabilerarekin.

1373	IRI	KO	Araudi aplikagarria sail baten irakasle-ikertzaile plazen epaimahaiak egindako esleipen proposamenean.
1374	IRI	KO	Irakasle-ikertzailearen portaera desegokiari buruzko ikasleen kezaren aurrean jardutea.
1375	AZP	KO	Araudi aplikagarria ikastegietako idazkaritzetako jendaurreko ordutegietan.
1376	IK	KE	Ebakuntza baten eriondoan irakaskuntza telepresentziala ez ematea.
1377	Beste batzuk	KE	Espedientea eskuratzeko eta emandako administrazio egintzak eteteko eskatzea.
1378	IK	KE	Ikasleentzako mikrouhin labeak ez izatea, unibertsitate ikastegi batean.
1379	IRI	KO	Goi mailako gaitasunak dituzten ikasleentzako arreta espezifikoa eskatzea.
1380	IRI	KO	UPV/EHUko doktore aurreko ikertzaile kontratu bati dagokion ordainsariari buruzko zalantzak.
1381	IRI	KO	Ikertalde bateko kide izateko aukera, irakasle emeritua izanda.
1382	IRI	KO	Azterketaren kopia eskuratzeko eskubidea, kalifikazioak berrikusteko.
1383	Beste batzuk	KO	Ikasleen arretarako protokoloa presondegietan.
1384	IRI	KO	Jarritako kexak izapidetzeko prozedura, ikasleen kexen protokoloaren arabera.